



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko irailaren 7a

100. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### B SAILA:

##### **Foru lege proposamenak:**

- Foru Lege proposamena, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezker-rako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (2. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzekoa. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezker-rako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (21. or.).

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du funts bat sor dezan amiantoaren biktimei kalte-ordaina emateko. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (40. or.).

---

**B saila:**  
**FORU LEGE PROPOSAMENAK**

---

**Foru Lege proposamena, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak foru lege proposamen bat aurkeztu dute, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

**ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko irailaren 5an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**Foru Lege proposamena,  
zeinaren bidez herritarrentzako  
laguntza-neurriak ezartzen baitira  
etxebizitzaren alorrean**

**ZIOEN AZALPENA**

**I**

Nafarroako Gobernurako 2015-2019 Legegintzaldirako programa-akordioak etxebizitza-alorreko neurri-sorta bat biltzen du, nafar herritarrentzat etxebizitza duin eta egoki baterako eskubidea gauzatzeko asmoz.

Neurri horien ezarpena ezin da berandutu, kontuan harturik nolako egoeran dauden Nafarroako Foru Komunitatean bizi diren pertsona asko, duela zortzi urte baino gehiagoz geroztik pairatzen ari garen krisialdi ekonomikoaren ondorioz, zeinak ausiki bereziki latza egin baitie biztanleria-aren sektore behartsuenei.

Foru lege honen bitartez, programa-akordioan jasotako eginkizun asko bete nahi dira. Horretarako, beharrezko gertatzen da zenbait artikulua aldatzea maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legean, Nafarroan Etxebizitza Izateko eskubideari buruzkoan, eta irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuan, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen horretan.

**II**

1. artikuluan jasotzen dira Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legeko zenbait artikuluren aldaketak.

Lehenik eta behin, modua ezartzen da Nafarroako Administrazio Publikoen edo haien menpeko sozietate publikoen etxebizitza babestuak prekarioran lagatzeko, halatan gizarteratze- edo laguntza sozialeko programen babespera bildutako pertsonak artatzeko. Horrekin lortu nahi da etxebizitza-larrialdiko egoera zehatz batzuei erantzutea, zeinak orain arte ezin baitziren etxebizitza babestuak erabiliz konpondu, etxebizitza horien erabilerari eta esleipenari buruzko araubidearen zurruntasuna zela-eta.

Gizarteratze-arloko beharrianak dituzten pertsonen etxebizitza babestuak errentamendu-araubidean eskuratzeko premiari heldurik, foru lege honek zabaldu egiten du pertsona-kolektibo horien alde etxebizitza babestuen erreserba ezarri ahalko den kasuen multzoa, horrenbestez esleipen-prozedura malguagoturik eta, zalantzarik gabe, etorkizunean sor litezkeen ustekabeko egoerei azkarrago erantzutea ahalbideturik.

Halaber, eta kolektiborik behartsuenen premiei erantzuteko asmo berberarekin, modua ezartzen da administrazio edo sozietate publikoen jabetzakoak diren etxebizitza babestuen errentamendua baimentzeko, etxebizitza haiek errentan ematen zaizkienean toki entitateei, edo etxebizitza zertarako eta ardurapean dituzten helburu soziale-tarako behar duten irabazi-asmorik gabeko pertsona juridikoei.

Bestalde, 10. artikulua testua aldatzen da, etxebizitza babestuen gehieneko salmentaprezioari eta gehieneko errenta-prezioari bestelako araubide bat ezartzeko. Azken batean, xedea da etxebizitza babestuen gehieneko errenta-prezioa deslotzea etxebizitza babestuen salmentari aplikatzekoak zaizkion moduluen eta prezioen bilakaeratik, guztiz ezberdinak baitira etxebizitza babestuen errentamenduaren helburuak eta haien salmentarenak. Gainera, azken urteotan ikusi da gehieneko errenta-prezioak gehiegi garestitu direla, etxebizitza babestuen salmentari aplikatzekoak zaizkion moduluen pixkanakako igoeraren ondorioz. Garestitze hori etxebizitza babestuen errentaprezioari aplikatzearen ondorioz, merkatu libreko errentamendu-prezioa prezio babestuaren azpitik gelditu izan da kasu askotan, eta horrek ez dauka inolako logikarik.

Horrek praktikan dakar maizterrek diru-laguntzak jasotzeko aukera duteneko etxebizitza babestuen gehieneko errenta-prezioak jaiste, eta bi errentamendu-prezio ezberdin ezartzea etxebizitzaren kokalekuaren arabera. Era berean, gehieneko errenta-prezio ofizialaren etorkizuneko eguneratzea objektibatu egiten da, halako moduz non orain erreferentzia gisa ezartzen baita Lehiakortasuna Bermatzeko Indizearen bilakaera.

Orekagarri, foru lege honek berreskuratu egiten du erosketak gabeko errentamenduko araubidea duten etxebizitza babestuen sustatzaileentzako diru-laguntza. Gogora dezagun diru-laguntza hori indargabetu egin zuela martxoaren 14ko 16/2012 Foru Dekretuak, zeinaren bidez 59. artikulua indargabetu baitzitzaien urtarrilaren 9ko 4/2006 Foru Dekretuari, Etxebizitzaren arloko jarduketak babesgarriak eta etxebizitzetarako eraikinen sustapena arautzekoari. Praktikan, horren ondorioa izan zen errentamendu-araubideko etxebizitza babestuen sustapen berri gehiago eraikitzeari uztea.

Programa-akordioan jasotako beste puntu bat da etxebizitza-kooperatiben sustapena. Puntu hori betetzeko, 20. artikulua 5. idatz-zatiaren testua aldatzen da, etxebizitza babestuak sustatze aldera udalerrian erroldaturiko pertsonen kooperatibak eratzea ahalbidetzeko. Aurreikuspen hori bazego-

en jadanik lehenagotik, baina hedatu egiten da Iruñerri kanpoko 10.000 biztanlerainoko udalerrietara, eta 4 urtetik urtebetera murrizten da udalerrian erroldatuta egon beharreko denbora-epaeren betekizuna. Interes berezikoa da irabazi asmorik gabeko elkarteek babes ofizialeko etxebizitzak erabilera-lagapeneko araubidean sustatzeari buruzko araubide berria. Azken batean, asmoa da kooperatibagintza sustatzea, halaber sorturik etxebizitza eskuratzeko araubide berri bat, etxebizitza-erosketa edo -errentamenduz landakoa, araubide baten eta bestearen onena hartzen saiatuz, gizarte aldakor baten premia berrietara egokitzeko. Era horretan sustaturiko etxebizitzak babes ofizialeko etxebizitzei aplikatzekoak diren xedapen orokorrek gobernatuak dira, nahiz eta babes-araubidearen iraupena mugagabea izan den, eta ez den beharrezkoa izan etxebizitzak esleituak izatea etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldaren bitartez.

Eginiko hurrengo aldaketak xede du etxebizitza babestuen esleipenean orain arte gertatu izan den egoera bidegabe eta diskriminatzaile bat amaieratzea: Nafarroako Foru Komunitateko udalerriren batean erroldatuta emandako urteen araberrako puntuazioa.

Etxebizitzarako eskubidea eskubide konstituzional bat da, bermatu behar dena zenbanahi direla ere toki jakin batean bizitzen emandako urteak, Nafarroan erroldaturiko pertsona guztiak berdintasunez tratatu behar direlakoan. Horregatik, etxebizitza babestu bat erosi edo errentan hartzeko aukera izateko baremoetan jasotako berriazko puntuazioa, xedetzat zuena Foru Komunitateko udalerriren bateko erroldaldi-urteak lehenestea, bertan behera uzten da, eta erroldaldi-antzinatasuna erreferentziatzat zeukaten foru legeko beste artikulua batzuk aldatuak dira.

Halaber, errentamendu-aukera izateko baremoa aldatua da, puntuazio handia ematearren edozein arrazoi tarteko dela bizitzen ari ziren etxebizitza galdu duten pertsonen, eta orain arteko aurreikuspena hedatu egiten da ordainean ematearen bat gertatu den kasuetara edo errenta ez ordaintzeagatik etxegabetuak izan diren pertsonetara. Eta etxebizitza-kontu baten titulartasunarengatik zerga-arinketa desagertu delarik, arrazoi horregatik lehenago zegoen kontzeptua aldatu eta hedatu egiten da, etxebizitza babestu bat eskuratu aurretik gutxieneko aurrezpen bat duela frogatzen duena barne hartzeko. Azkenik, betebeharrak gisa ezartzen da etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldaren bitartez egin dadila 60 urte baino gehiagoko pertsonentzako edo desgaituentzako tutoretzapeko apartamentuen

esleipena, eta lehendik xede horretarako baizik ez zegoen baremoa kendu egiten da.

Arreta berezia merezi du 40. artikuluari eginiko aldaketak, zenbait betebeharrak ezartzen baitzaizkie errentamendu-araubideko etxebizitza babestuen kudeatzaileei, eraikinaren elementu amankomunen kudeaketatik eratorritako gastuak sailkatu ahal direneko kontzeptu ezberdinen finkaketan beharrezkoa den gardentasuna dagoela zaintzearen.

Azkenik, titulu berri bat gehitzen zaio maiaztaren 10eko 10/2010 Foru Legeari, etorkizunean etxebizitza-arloko politiken taxuketan herritarrek parte har dezaten ziurtatzeko. Parte-hartze hori bidez ezberdinen bitartez mamituko da; haietatik nagusia Nafarroako Etxebizitza Plana da, zeinaren gutxieneko edukia eta prestatze-prozedura foru lege honek arautzen baititu.

Horrez gain, titulu berrian etxebizitza-arloko administrazio-antolara berri bat jasotzen da; halatan, Nafarroako Etxebizitza Kontseilua arlo honetan Nafarroako Gobernuak duen kontsulta- eta aholkularitza-organo gisa ezartzen da, eta jadanik existitzen den etxebizitza-arloko bitartekotza Zerbitzuaren funtzionamendua arautzen da.

### III

Programa-akordioa betetzeko orobat behar da irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretua aldatu, etxebizitzaren arloko jarduketak babesgarriak arautzen dituen. Horretarako, haren manu batzuk aldatzen dira 2. artikuluan.

Lehenik eta behin, energia-ziurtagiriaren arloan aplikatzekoa den Europar Batasuneko araudia betetzen joateko, eskatuko da 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera kalifikatzaera aurkezten diren etxebizitza babestuen sustapen guztiek frogatzea dezatela gutxienez ere B mailako energia-kalifikazioa lortuko dutela energia-kontsumoari dagokionez.

Bigarrenik, populazio-sektore behartsuenei laguntzeko neurri gisa, errenta-prezioaren % 75eko diru-laguntza bat ezartzen da etxebizitza babestuen errentamenduen berritze edo luzatzeen kasuetarako, maizterra gizarteratze-errentaren hartzaile denean.

Baliabide gutxi dute pertsonen laguntzearen helburu berberaren mesedetan egina da eraikin eta etxebizitzaren zaharberitze babestuak buruzko zenbait artikuluen aldaketa.

Ildo horretan, obrek babestu-izaera izateko eta beraz kasuko laguntzak eskuratzeko eskubidea izateko haietan gastatu beharreko gutxieneko zenbatekoa jaitsi egiten da, eta berriazko laguntzen sorta bat ezartzen da, baldintza egokietan jartze

aldera Gizarteratze Etxebizitza programaren pean eskuraturiko etxebizitzak edo gizarteratze-errenta jasotzen duten famili unitateen jabetzakoak. Aukera ematen da diru-laguntza garaiz aurretik eskuratzeko, irabazi-asmorik gabeko enteen eta toki entitateen bitartez. Halaber, gizarteratze-errentaren onuradunentzako laguntza-portzentaje gehigarri bat ezartzen da, eta zenbait kolektiborentzako diru-laguntzak hobetzen dira: 65 urtetik gorakoenetzakoak, desgaitu motor larrientzakoak, familia ugarienezakoak, gazteentzakoak, genero-indarkeriaren biktimenezakoak eta terrorismoaren biktimenezakoak.

Zaharberitze dagokionez, garrantziko beste aldaketa batzuk ere egiten dira. Batetik, etxebizitza bat zati edo etxebizitza batzuk elkartuz sortzen diren etxebizitza zaharberitze gehieneko azalera 120 metro koadrorara hedatzen da, ezen kasu batzuetan dauden etxebizitzaren azalera dela-eta, gerta liteke lehen aipatzen ziren 90 metro koadroen irizpidea ezin bete izatea, eta horrenbestez ezinezko bihurtzea zenbait jarduketa. Bestalde, zaharberitze-laguntzak eskuratu ahal izateko betekizun gisa bertan behera uzten da beste etxebizitza baten jabe ez izatearena, asmo osoa baitago zaharberitze-ekintzak sustatzeko eta jardura ekonomikoari bultzada emateko.

Arreta handiagoa merezi du ingurutzailerik hobeagoa hobetzeko laguntzen balizko hartzaileen multzoa handitzeak eta beroketa eta/edo ur beroko sistema zentralizatuaren instalazio osoaren gaineko jarduketari ekiten dieten jabe-erkidegoentzako laguntza berri bat sortzeak. Ildo horretatik, eta martxoaren 5eko 5/2015 Foru Legeak, Nafarroan hirigintza iraunkorra, hiri-berrikuntza eta hirigintza-jardura laguntzeko neurri buruzkoak, markaturiko ildotik, bi neurri horiekin lortu nahi da herritarren bizi-kalitatea hobetzea, Foru Komunitatearen energia-mendekotasuna murriztea eta gure udalerrietan dauden energia-txirotasuneko kasuak desagerraraztea. Azken batean, asmoa da Europar Batasuneko 27 estatu kideek 2010eko ekainaren 22an Toledoko Adierazpenean eginiko baieztapena betetzea: "Hiri-jasangarritasunaren guda nagusia jadanik finkatua dagoen hiriaren hiri-bilbean ahalik eta ekoefizientziarik handiena lortzearen ingurukoa da."

Bestalde, toki entitateen etxebizitza-politikei lagundu nahi zaie. Horrenbestez, beren etxebizitzak errentamenduan jartze aldera zaharberitze dituzten toki entitateentzako diru-laguntza berri bat ezartzen da. Diru-laguntza berri horrek ez ditu bakarrik barne hartzen etxebizitzaren egokitzapenerako egin beharrekoak diren zaharberitze-obra, baizik eta horren ondorengo etxebizitza-

errentamendua ere, baldintza jakin batzuk betez gero. Halaber, diruz laguntzen da etxebizitza erabilien erosketa, errentamenduzko gizarte-integrazio-ko etxebizitzaren programara bideratzeko erosketa denean.

Azkenik, ez dadin etxebizitza-ihesik gerta errentamendu-etxebizitza babestuen parketik, aldatu eta malgutu egiten da araubidea, ezarri zitzaizen babestu-izaeraren iraunaldia amaitu zaien etxebizitzak errentamendu babestura bideratu ahal izateko aukeraren nondik norakoak zehazten dituen.

#### IV

Xedapen gehigarri bakarraren helburua da 2017an izoztuta uztea etxebizitza babestuentzat foru lege honetan ezarritako errenta-prezio berria. Xedapen iragankorrak zehaztu egiten du baremo eta erreserba berriak eskatzaile-eroldaren bitartezko zein esleipen-prozeduratatik aurrera izanen diren aplikatzekoak. Bestalde, azken xedapenetan lehenak gaitu egiten du Nafarroako Gobernu Nafarroan Etxebizitza Izateko eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen testu bategin bat egiteko. Gaikuntza horren arrazoia da aipatu foru legeari egin zaizkion aldaketen ugaritasuna, eta helburu du etxebizitza-alorrean diharduten eragile desberdinen nahitaezko ziurtasun juridikoa bermatzea.

#### V

Aurreko guztia ahalbidetzeko, foru lege honek bi artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta bi azken xedapen ditu.

**1. artikulua.** Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzea.

Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea honela aldatzen da:

Bat. 7. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Honela geldituko da idatzita:

“3. Babes ofizialeko etxebizitzak talde hauetan sailkatu ahalko dira: jabetza araubidekoak, errentamendu araubidekoak, erosteko aukera duen errentamendu araubidekoak eta erabilera-lagapeneko araubidekoak. Prezio tasatuko etxebizitzak jabetza araubidean sailkatuko dira bakar-bakarrik.

Aurrekoa gorabehera, zilegi izanen da Nafarroako administrazio publikoen titulartasunekoak edo haien menpeko sozietate publikoen titulartasune-

koak diren etxebizitza babestuak prekario-araubidean esleitzea, ohiz kanpoko zenbait inguruabar aintzat harturik, haien errentamendu- edo jabetza-araubideko esleipena behin-behinekoz eragozten dutenak; horretarako, beharrezkoa izanen da haien onuradunak gizarteratze- edo gizarte-laguntzako jarduketa berariazkoetan sartuta egotea, etxebizitzak kokatuta dauden udalak edo Nafarroako Gobernuak garaturikoak”

Bi. 10. artikulua aldatzen da. Hauexek dira berriak:

“10. artikulua. Salmentarako eta errentarako gehieneko prezioa.

Etxebizitza babestutzat kalifikatzeak berarekin dakar gehieneko prezio mugatu bati loturik egotea edozein xedatze-, errentatze- edo eskuratze-egintza.

1. Gehieneko salmenta-prezioa.

a) Etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuko buruari dagokio etxebizitza babestuen eta haien eranskinen gehieneko salmenta-prezioa finkatzea, foru lege honetan xedatutakoaren arabera; eta Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen xedatuaren arabera parte-hartze sozialeko prozesu bat garatu beharko da hura onetsi aurretik.

b) Etxebizitza babestuen gehieneko salmenta-prezioa modulu ponderatugabearen eta ponderatuaren arabera finkatzen da.

c) Modulu ponderatua aplikatu ahal izanen zaie, gutxienez, etxebizitza berri babestuen eraikuntzari, zaharberritze-jarduketari eta eraikibidean diren etxebizitza babestuak erosteko lehen-tasunari eta atzera eskuratzeari, edo lehenbiziko eskualdaketakoei behin betiko kalifikazioaren ondoko lehen urtearen barnean.

Modulu ponderatugabea etxebizitza babestuen gehieneko salmenta-prezioa zehazteko erabiliko da, honako kasu hauetan:

1.- Urtebete baino lehenagotik, jabetza araubidean behin betiko kalifikatu diren etxebizitzetan.

2.- Gizarteratze-programetan sarturiko etxebizitzetan.

3.- Bigarren eskualdaketan lehentasunez erosteko edo atzera eskuratze eskubidearen xede diren etxebizitzak, edo lehenbiziko eskualdaketan, behin betiko kalifikazioaz geroztik urtebete baino gehiago igaro bada.

4.- Etxebizitza babestuen bigarren eta hurrengo eskualdaketak.

5.- Erregelamenduz zehazten diren beste batzuk, hala egiten bada.

Gehieneko salmenta-prezioen moduluak urtero ezarriko dira, eta etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko euro kopuruan adieraziko dira.

Etxebizitza babestuen eta haien eranskinen metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko salmenta-prezioak kalkulatu dira modulua kasuko koefizientearekin biderkatuz.

Nafarroako Gobernuak zonen arabera koefizienteak ezartzen ahalko ditu, zona batetik bestera kostuetan egon litezkeen desberdintasunak baloratu ahal izateko.

d) Moduluak urtero eguneratuko dira, urte bakoitzeko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginez, babes ofizialeko etxebizitzaren (BOE) gehieneko salmenta-balioa formula hau erabiliz kalkulatu:

$$VMu = ((1.27 + H/100) \times PEMu) / (0.755 - (F + Co + B)/100), \text{ hau da:}$$

VMu = gehieneko salmenta-balioa, babes ofizialeko etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko.

H = Obra-proiektuaren eta -zuzendaritzaren lansari teknikoaren kostua, exekuzio materialaren aurrekontuaren gaineko ehunekoan adierazia. Kostu horren balio normala % 7koa izanen da. Zilegi izanen da horri % 1 gehitu edo kentzea, justifikazio tekniko baten bitartez.

PEMu = Exekuzio materialaren aurrekontua, eurotan, metro koadro erabilgarri bakoitzeko. Hori kalkulatzeko, sustapen baten guztizko azalera erabilgarriz joko da etxebizitza eta garajeetarako azalera erabilgarri guztizkoen eta trasteleku eta lokaletarako % 40aren batura.

F = Sustatzailearen finantza kostuak, gehieneko salmenta-prezioaren gaineko ehunekotan adieraziak (VM). Kostu horren balio normala % 4koa izanen da. Zilegi izanen da horri % 1 gehitu edo kentzea, justifikazio tekniko baten bitartez.

Co = merkaturatze-kostuak, gehieneko salmenta-prezioaren gaineko ehunekotan adieraziak (VM). Kostu horren balio normala % 2koa izanen da. Zilegi izanen da horri % 1 gehitu edo kentzea, justifikazio tekniko baten bitartez.

B = Sustatzailearen etekina, gehieneko salmenta-prezioaren gaineko ehunekotan adierazia (VM). Kostu horren balio normala % 11koa izanen da. Zilegi izanen da horri % 1 gehitu edo kentzea, justifikazio tekniko baten bitartez.

Aldagai horiek zehazteko, lehenasunez hartuko dira kontuan babes ofizialeko etxebizitzaren sus-

tapen publikoak. Era berean, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuan kalifikazioa jasotzeko aurkeztu diren babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenei buruzko datuak ere erabil daitezke. Horretarako, departamentu horrek sustatzaileei eskatzen ahalko die aurkez dezatela obra amaierako ziurtagiria, edo formulan aurreikusitako aldagaiak kalkulatzeko interesekoak izan daitezkeen beste datu batzuk.

e) Modulu ponderatua.

Babes ofizialeko etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko balioa zehaztu ondoren, modulu ponderatua kalkulatu da balio hori zatituz babes ofizialeko etxebizitzaren eta haien eranskinen metro koadro erabilgarri bakoitzeko gehieneko salmenta-prezioak zehazteko ezarritako koefizientearekin.

f) Modulu ponderatugabea.

Modulu ponderatugabearen balioa modulu ponderatuaren balioaren ehuneko 96koa izanen da.

2. Gehieneko errenta-prezioa

a) Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera, gehieneko errenta-prezioa, etxebizitza-errentamenduko kontratu berriei aplikatzekoa izanen dena noiz eta etxebizitza horiek araubide bereziko babes ofizialekoak direnean, edo foru lege honen arabera kalifikaturiko babes ofizialekoak, edo jabe partikularrek errentan emandako etxebizitza babestu behin betikoz jabetza-araubidekotzat kalifikatuak, izanen da 5,40 eurokoa etxebizitzaren metro koadro erabilgarriko, 60 eurokoa garajearen azalaren osotasunerako, eta 2 eurokoa trastelekuaren eta gainerako eranskinen metro koadro erabilgarriko.

Nafarroako Lurralde Estrategiako 10. Eremuko 10.4 azpierenan kokatu gabeko 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrien kasuan, gehieneko errenta-prezioa izanen da 5,1 eurokoa etxebizitzaren metro erabilgarriko, 60 eurokoa garajearen azalaren osotasunerako eta 2 eurokoa trastelekuaren eta gainerako eranskinen metro koadro erabilgarriko.

b) Aurreko letran ezarritako gehieneko errenta-prezioak aplikatu egingen zaizkie foru lege hau indarrean sartu aurretik sinatuak diren etxebizitza babestuaren errentamenduko kontratuen berriztatzei, zeinak Administrazioaren ikus-onetsirako indar-hartze data horretatik aurrera aurkeztu diren.

Arestian xedatua ez zaie aplikatuko etxebizitza babestuaren errentamendu-kontratuen luzapenei,

kasuko kontratuan ezarritako errenta-egunera-tzearen formulari lotuta baitaude. Horri dagokionez, errentamendu-kontratuaren luzapentzat uler-tuko da, soil-soilik, 4 urterainoko gehieneko eperako egiten dena, Hiri Errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 9. eta 10. artiku-luetan xedatuari jarraituz.

c) Goiko a) letran etxebizitza babestuetarako ezarritako gehieneko errenta-prezio ofizialak urte-ro eguneratuko dira; horretarako, indarreko pre-zioari aplikatuko zaio aurreko hamabi hilabeteeta-ko Kontsumoko Prezioen Indizeen Sistemako Indize Orokor Nazionalaren portzentajezko aldake-ta, urte bakoitzeko azaroaren 30ean ezagunak diren azken datuak harturik. Aurrekoa gorabehera, foru lege hau indarrean sartu ondotik sinatzen diren errentamendu-kontratueta-ko errenta-prezioa-ren eguneratzea eginen da aplikatzekoa den oina-rrizko araudiari jarraituz.

d) Araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzaren, prezio tasatuko etxebizitzaren eta pre-zio itunduko etxebizitzaren errentamendurako kalifi-katuriko sustapenetako gehieneko errenta-prezioa izanen da aurretik aplikatzekoa zen araudiaren arabera ezarri beharrekoa.

e) Ezin izanen da inolako abalik eskatu alokai-ru publikoko errentamendu-kontratu egiteko”

Hiru. 17. artikuluko 7. idatz-zatiaren testua alda-tzen da. Honela agertuko da idatzita:

“7. Etxebizitzaren eskuratzailerak, esleipen-har-tzaileak, norberak erabiltzeko gordetzen duen sustatzaileak, errentariak edo onuradunak bizile-ku-baimena izatea, agiri hori eskatu behar den kasuetan, eta Nafarroako udalerrri batean errolda-tuta egotea.

Atzerrian bizi diren nafar egoiliarrek, Espainian egindako azkeneko erroldatzea Nafarroako udale-rrri batean egin bazuten, ez dute erroldatzearen gaineko betebeharrak hori bete beharko.”

Lau. 20. artikuluko 3. idatz-zatiko h) letra alda-tzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“4. Erosketa-aukerarik gabeko alokairu-araubi-deko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, udale-rrri edo sozietate publiko batek sustatuak direnean udalaren titulartasuneko lurzoru batean, udalak zilegi izanen du udalerrian erroldaturiko per-sonentzat erreserbatutako etxebizitzaren kopurua finkatzea”

Bost. 20. artikuluko 4. idatz-zatia aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“4. Erosketa-aukerarik gabeko alokairu araubi-deko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, aurre-

ko idatz-zatian adierazitako erreserbez gainera, etxebizitzak honako hauek kontuan harturik eslei-tuko dira:

a) Genero-indarkeriaren biktimentzako erreser-ba gehitu eginen da, esleitu beharreko etxebizitza guztien 100eko 6ra iritsi arte.

b) Gizarte-integrazioko etxebizitzaren beharra duten pertsonak: etxebizitza arloan eskumena duen departamentuak horren gainean hartzen dituen ebazpenen arabera. Gainera, erreserba honetarako eskubidea izanen dute Nafarroako Gobernuak etxebizitza-arloko bitartekaritza-zerbi-tzuak zehazturiko pertsonak, dela errenta edo hipoteka ez ordaintzeagatik etxegabetzeagatik zerbitzu horretan espediente irekia izateagatik, dela etxebizitza babestuen errentamenduagatik diru-laguntzaren onuradun diren maizterrak izanik etxebizitzaren babes-araubidea abian den urteal-dian amaitzeagatik. Hasierako etxebizitza-erreserba hori geroago zabalagotu nahiz murriztu ahalko da, antzematen diren premien arabera. Era berean, zilegi izanen da erreserba hori abiaraztea etxebizitza babestuak hasiera batean esleitzean halako erreserbarik aurreikusita ez zeukaten sus-tapenetan.

c) Esleitu beharreko etxebizitzaren % 6ko erre-serba bat ezartzen da eskatzaile bakar gisa izen ematen duten pertsonentzat”

Sei. 20. artikuluko 5. idatz-zatia aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“5. Nafarroako Lurralde Estrategiako 10. eremu-ko 10.4 azpierenmuan kokatuta ez dauden 10.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan, etxebizitza arloko departamentu eskudunak baremoa aplika-tzetik eta zentsuan inskribatu beharretik salbuetsi ahalko ditu kasuan kasuko udalaren erroldan urte-beteko antzinatasun etengabea duten pertsonak ez bestek osatutako elkarte eta kooperatibek sus-taturiko etxebizitzak”

Zazpi. 22. artikuluko 2. idatz-zatiaren testua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“2. Horrela esleitu gabe gelditzen diren etxebizitzak esleitu zaizkio Nafarroako edozein udalerritan erroldaturikoentzako erreserbari, ezertan galarazi gabe 20.3.h) artikuluan ezarritakoa”

Zortzi. 23. artikuluko 2. idatz-zatiaren testua aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

“2. Halaber, aurreko idatz-zatian aurreikusitako erreserben barrenean, errentamendu araubideko babes ofizialeko etxebizitzak, erosteko aukera dutenak eta ez dutenak, ehuneko hauen arabera banatuko dira:

a) Familiaren diru-sarrera ponderatuak eskatzen den gutxieneko diru kopurutik Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (IPREM) halako 1,7ra bitartekoak dituzten eskatzaileentzat: babes ofizialeko etxebizitzaren 100eko 50.

b) Familiaren diru-sarrera ponderatuak Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (IPREM) halako 1,7tik halako 2,5era bitartekoak dituzten eskatzaileentzat: babes ofizialeko etxebizitzaren 100eko 40.

c) Familiaren diru-sarrera ponderatuak Ondorio Askotarako Errenta-adierazle Publikoa (IPREM) halako 2,5etik halako 4,5era bitartekoak dituzten eskatzaileentzat: babes ofizialeko etxebizitzaren 100eko 10."

Bederatzi. 24. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"Aurrezki-kontu, gordailu edo antzeko finantza-produktu baten titularra izateagatik, bertan 6.000 euro edo gehiago baditu: 4 puntu, gehi 2 puntu gehiago kontu edo gordailu horren antzinatasun urte bakoitzeko, gehienez 16 puntu egin arte. Ondorio horietarako, gehieneko puntuazio bera emanen zaie bananduta edo dibortziatuta dauden edo bikote egonkorra desegin duten eskatzaileei, familiaren etxebizitzaren hipoteka kargak bere gain hartu dituztela frogatzen badute. Horrenbestez, egoera horretan egonez gero, 4 puntu emanen dira, eta 2 puntu gehiago ezkon-lotura edo bikote egonkorra desegin zenetik igaro den urte bakoitzeko."

Hamar. 24. artikuluko 4. idatz-zatia kentzen da

Hamaika. 25. artikuluko 1. idatz-zatiaren g) letraren testua aldatzen da. Hemendik aurrera, haren testua hauxe izanen da:

"g) 10 puntu honako pertsona hauentzat, baldin eta deskribaturiko kasuak gertatuak badira etxebizitza babestuaren eskatzaile-eroldan izena emandako egunetik kontatzen hasitako bi urteko epearen barnean:

– Hipoteka-zorraren ordainean beren ohiko etxebizitza entitate mailegu-emaleari edo entitate horrek izendaturiko pertsona juridikoari eman diotenak.

– Beren ohiko etxebizitza saldu eta hipoteka-zorraren kita erabatekoa edo partziala egin dutenak.

– Beren ohiko etxebizitzaz gabetzeko ebazpen judizial bat jaso dutenak, hipoteka-exekuzioko edo ohiko etxebizitzaren errentaren fede oneko ez-

ordaintzearen ondoriozko prozesu judizial edo estrajudizialak direla eta."

Hamabi. 25. artikuluko 6. idatz-zatia kentzen da

Hamahiru. 29. artikuluko 2. idatz-zatiaren f) letraren testua aldatzen da. Hemendik aurrera, haren testua hauxe izanen da:

"f) 7. artikuluko 6. idatz-zatian aurreikusitako mota berezietara biltzen diren pertsonak, salbu eta 60 urtez gorako pertsonentzako edo desgaitasunen bat duten pertsonentzako alokairuzko apartamentuen sustapenen kasuan"

Hamalau. 29. artikuluko 2. idatz-zatiari g) letra berri bat erantsen zaio, eta honela geratuko da idatzita:

"g). Irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatuek eginiko erabilera-lagapeneko araubidekoak diren babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenetan sartzea lortzen duten pertsonak, eta etxebizitza-esleipeneko dena delako prozedura amaitu ondoren etxebizitza huts gisa deklaraturiko etxebizitzak eskuratzen dituztenak"

Hamabost. 31. artikuluko 3. idatz-zatia aldatzen da. Honela gelditzen da idatzita:

"3. Ezarritako baldintzak betetzen dituen eskatzaileak ez egoteagatik erreserba baten barnean esleitu gabe gelditzen den etxebizitza bakoitza erantsi egiten zaio Nafarroako edozein udalerritan erroldatuentzako erreserbari."

Hamasei. 40. artikuluko 3. idatz-zati berri bat erantsen zaio, testu hau izanen duena:

"3. Gainera, errentamendu-araubidekotzat kalifikaturiko etxebizitza babestuen kasuan, errentatzaileak betebeharrak hauek izanen ditu:

a) Errentamendu-kontratuaren ikus-onespena lortzen den unetik aurrera, errentariari ahalbidetu beharko dio, gutxienez ere 15 eguneko epeaz, balizko matxuren berri emateko erreklamazioak aurkeztea, haien konpongarriak izan nahiz ez izan, halatan etxebizitzak jasotze-emate unean duen egoera adierazia gera dadin. Matxuren nolakotasunaren arabera, etxebizitzaren egoerari buruzko argazki-erreportaje bat erantsi ahalko da, frogagarri. Etxebizitza-alorreko eskumena duen departamentuko titularrak emandako foru agindu bidez, etxebizitza jaso eta emateari buruzko akta-ereduak ezarri ahalko dira.

b) Errentariak kontzeptu guztiengatik ordaindu beharreko guztizko errenta-prezioaren behin betiko kalkulua egitea. Auzotarren erkidegoa eratu zenetik urtebete pasa gabe badago, horren berri



eman beharko zaio maizterrari, eta erkidego-gastuak gutxi gorabeherakoak direla jakinarazi. Erkidego-gastuak haien egiazko zenbatekoari doitzen joan beharko zaizkio, doikuntza hori erkidegoaren urte bakoitzeko kontuekin justifikatuz.

Halaber, errentatzailea behartuta dago eraikinaren Obra Berriaren Deklarazioan ezarrita dagoen gastu orokorren banaketaren berri ematera, horretarako zehaztuz gastu hori osatzen duten kontu-sailak eta gastua etxebizitzaren artean banatzeko modua.

c) Auzotarren erkidegoaren kostuen berri ematea, bai eta hornidura ezberdinena ere, modurik ez dagoenean kostu horiek kontagailu bidez esleitzeke; halaber jakinaraztea zein den egozte-metodoa edo kostua, zenbateko finko baten bidez ezarria denean.

d) Emandako balizko diru-laguntzei buruz informatzea. Horretarako, errentatzaileak errentarien eskuera utziko du Administrazioaren ikusoneste eginbidearen kopia bat.

e) Errentariei jakinaraztea zein datatan amaituko den errentan harturiko etxebizitzaren babes-araubidea.

f) Errentamendu-kontratuaren indar-hartze egunetik aurrera sorturiko hornidura-gastuengatik baidarik ez kobratzea.

g) Zerbitzu- edo hornidura-gastuen kobrantza banakotzea. Horretarako, errentariak ordaindu beharreko zerbitzu-gastuen kalkulua haren kontsumo berekien arabera egingen da. Ez da zerbitzu-gasturik kobratuko ez bada kontsumorik egiten, salbu eta errentatzaileak edo hirugarrenek emandako zerbitzuren baten horniduran kostu finkoak daudenean, errentariak zerbitzua erabili nahiz ez erabili. Kostu finko horiek berariaz adierazi beharko dira errentamendu-kontratuan edo kontratu horri erantsitako dokumentuan. Halaber, errentatzaileak errentarien eskuera ipiniko ditu haien etxebizitzetan eginiko kontsumoei dagozkien fakturak, bai eta eraikinaren elementu amankomunei dagozkien hornidura-zerbitzuen ematetik eratorritako fakturak ere.

h) Errentarien eskuera iragarki-ohol bat utzi, informazio muntaduna eskainiko duena.

i) Etxebizitza-arloan eskudun den departamentuari eraikinaren elementu amankomunen kudeaketatik eratorritako urtealdi-kontuen kopia bat bidaltzea. Informazio hori urtero argitaratuko da etxebizitza-arloko informazio-webgunean.”

Hamazazpi. 43. artikuluar 3. idatz-zati berria eransten zaio, zeinak aurrerantzean testu hau izanen baitu:

“3. Erabilera-lagapeneko araubidekotzat kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzaren babes-araubideak iraunaldi mugagabea izanen du, edo, kasua bada, azalera-eskubidearen iraunaldia amaitu bitartekoa, baldin eta azalera-eskubide hori gutxienez ere 50 urterako eratzen bada.”

Hemezortzi. 79. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letraren testua aldatzen da. Honela geldituko da idatzita:

“b) Etxebizitzak indarrean dagoen bizigarritasun-zedula edo administrazio-dokumentu baliokidea baldin badu. Horri dagokionez, indarrean dauden bizigarritasun-zedulen kopia lortu ahalko da etxebizitzaren jabetza edo etxebizitza okupatzeko titulu zilegi bat izatea frogatu behar izan gabe.”

Hemeretzi. VIII. titulu berria gehitzen da. Hona edukia:

#### “VIII. TITULUA

Herritarren partaidetza eta administrazio-antolaketa etxebizitza-arloan

#### I. KAPITULUA

Herritarren partaidetza etxebizitza-arloan

84. artikulua. Herritarren partaidetza.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, etxebizitza-arloko departamentu eskudunaren bitartez, herritarren partaidetza eta lankidetzaren sustatuko ditu etxebizitza-alorrean, ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean, Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzkoan, eta hori garatzen duen araudian xedatuari jarraituz.

2. Horretarako, departamentu eskudunak etxebizitza-arloan prestatzen dituen plan eta proiektuak etxebizitza-arloko informazio-webgunean argitaratu beharko dira, ezertan galarazi gabe Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legean edo hori garatzeko araudian xedatuari jarraituz ezartzen diren berriemate-bideak.

3. Aurreko idatz-zatian aipaturiko argitaratzeak helburutzat izanen du herritarrek ezagut dezatela prestatze-fasean dauden plan eta proiektuen edukia, halatan ekarpenak, alegazioak edo iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten, kasuko plan edo proiektuaren behin betiko testua idazten denean aintzat hartuak izateko.

85. artikulua. Nafarroako Etxebizitza Plana.

1. Nafarroako Etxebizitza Plana honako helburuak dituen tresna da:

a) Foru Komunitatean etxebizitza-arloan aurre-eraman beharreko ekintza publiko ezberdinak planifikatu, sistematizatu eta antolatzea.

b) Herritarren partaidetza bideratzea eta posible egitea etxebizitza-arloko politika publikoen taxuketan.

2. Nafarroako Etxebizitza Planak honako adierazle hauek aztertu eta jasoko ditu gutxienik:

a) Nafarroako Foru Komunitatean dauden etxebizitzaren kopurua eta haien edukitza-araubidearen zenbatespena.

b) Eraikitako etxebizitza-parkearen egoeraren analisia, bai eta zaharberritzeari, berroneratzeari eta berrikuntzari dagokienez dauden premien ere. Horretarako, lehentasuna emanen zaio hiriguneetan kokaturiko etxebizitza-multzoen berroneratze- edo berrikuntza-premiak antzemateari.

c) Dauden etxebizitzaren okupazio-maila eta erabilera-eredu ezberdinen analisia (nagusia, bigarrena eta hutsa).

d) Populazioaren osotasunak etxebizitzari dagokionez dituen premiak eta herritarrek tamaina, kokaleku, tipologia edo edukitza-araubideari dagokienez adierazten dituzten zaletasunen azterketa.

e) Administrazio edo enpresa publikoen titularitasunekoak izanik erabilerarik ez duten eta gizar-te-politikei loturiko etxebizitzetarakoak izan daitezkeen lursailen eta eraikinen zenbatespena.

f) Nafarroako Foru Komunitatearen datu demografikoen, horien bilakaera-aurreikuspenaren eta gauzatu beharrekoak diren politiketan aurreikuspen horrek duen eraginaren analisia.

g) Jadanik planifikatuta dagoen eta garatu, urbanizatu edo eraikuntza-lana egiteke duen etxebizitzetarako lurzoruen analisia.

h) Herritarren etorkizuneko etxebizitza-beharrizanak asetze aldera hirigintza-garapen berrietan sartzeko modukoa den lurzoruen analisia.

3. Nafarroako Etxebizitza Plana prestatzeko erabili ahalko dira horretarako intereseko datuak gorde ditzakeen edozein erregistro publikotan eskuragarri dauden datuak.

4. Etxebizitza-arloan eskudun den departamentuak horrekin loturiko eskumenak dituzten gaineko departamentuekin lankidetzan taxutuko du Nafarroako Etxebizitza Plana.

Taxutze-prozedura horretan zehar herritarren parte-hartzea ziurtatuko da, dela nork bere izene-

an eginikoa, dela etxebizitzarekin zerikusia duten interesen ordezkariak izan daitezkeen bitartezkoa, bai eta toki entitateena ere, tartean dauden interes publikoak eta pribatuak ezagutze eta haztatze aldera.

Etxebizitza Plana Nafarroako Gobernuaren Erabaki baten bidez onetsiko da.

## II. KAPITULUA

### Etxebizitza-arloko administrazio-antolamendua

86. artikulua. Nafarroako Etxebizitza Kontseilua.

1. "Nafarroako Etxebizitza Kontseilua" izenpean, Nafarroako Gobernuarentzako etxebizitza-arloko kontsulta- eta aholkularitza-organoa eratzen da.

2. Kontseilua etxebizitza-arloko eskumena duen departamentuari atxikiko zaio, eta, erregela-mendu bidez ezartzen denaren arabera, honako hauen ordezkariak osatuko dute: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa, Toki Administrazioa, kontsumitzaile eta erabiltzaileak, Nafarroako Gazteriaren Kontseilua, etxebizitza-arloan interesak dituzten eragile ekonomiko eta sozialak, zehaztutako diren kolektibo profesionalak eta eginkizun nagusi gisa kolektibo behartsuen etxebizitzarako eskubidearen sustapenez arduratzen diren irabazi asmorik gabeko erakundeak. Kontseiluaren lehendakaritza etxebizitza-arloko eskumena duen departamentuburuarena izanen da.

Kontseilua osatzerakoan generoparekotasunerantz joko da.

3. Kontseiluak honako eginkizun hauek izanen ditu:

a) Nafarroako Etxebizitza Planaren taxuketaren jarraipena egitea.

b) Nafarroako Etxebizitza Planaren edukiari buruzko irizpen bat ematea Nafarroako Gobernuak hura onetsi aurretik.

c) Etxebizitza-arlokoak diren izaera orokorreko xedapenen proiektuei eta horien aldaketei buruzko irizpen ez-lotesle bat ematea.

d) Etxebizitzarekin lotutako edozein gaitan proposamenak eta iradokizunak egitea.

e) Arloan eskudun diren administrazioetako edozeinek eskatzen dizkion etxebizitza-arloko txosten eta kontsulta guztiak egin eta erantzutea, hurrenez hurren.

f) Etxebizitzaren sektorean diharduten eragile-en etengabeko elkarriketa sustatzea.

g) Erregelamendu bidez ezartzen den beste edozein.

87. artikulua. Etxebizitza arloko bitartekaritza-zerbitzua.

1. Etxebizitza arloko bitartekaritza-zerbitzuaren helburu nagusia da pertsona fisikoak artatzea, orientatzea eta aholkatzea, pertsona horiek uste-kabeko kaudimengabeziako egoera objektiboan edo kaudimengabezia-arriskuan baldin badaude, aurreikusgarriak izanik ere, saihestezinak direnak, ezinezko egiten dutenak haiek hartutako ordainketa-betebeharrak betetzea, eta balizko ondorio gisa dakartenak hipoteka-bermearekin kargatutako ohiko etxebizitza galtzeko arriskua, edo errentan harturiko etxebizitzaren uzte itundugabea.

Helburu hori betetzeko, Nafarroako Gobernuak zilegi izanen du gai hauei buruzko orientazioa eta aholkuak halaber ematen dituzten toki entitateekin hitzarmenak sinatzea.

2. Etxebizitza-alorreko bitartekaritza-zerbitzua, bere printzipio gidarrietan eta bitartekarien jardunean, uztailaren 6ko 5/2012 Legeari lotuko zaio, gai zibil eta merkataritza-zerbitzuko bitartekaritza-zerbitzukoari.

3. Etxebizitza-arloko bitartekaritza-zerbitzuak honako eginkizun hauek beteko ditu batik bat:

a) Orientazioa, informazioa eta aholkularitza eskaintzea hipoteka-kredituaren ez-ordaintzetik heldutako ondorioei buruz.

b) Pertsonen edo familiei orientazioa eta laguntza ematea entitate finantzario eta hartzekodunekiko harremanean, alderdi guztien beharrezko erantzunen dieten akordio negoziatuak lortzen saiatuz.

c) Familia-ekonomiako planak taxutzeari ekitea, zerbitzu integral eta koordinatu gisa, bai eta zor-berregituraketarako planen taxuketari ere.

d) Hipoteka-exekuzioaren alternatibak bilatzea, negoziazioaren eta bitartekaritzaren bidez.

e) Hipoteka ez ordaintzeagatik etxegabetearen ondorioak samurtzea Alokairu Poltsarekin eta Etxebizitza Sozialen Foru Funtzarekin koordinatuz, bestelako etxebizitzak eskaini ahal izatea ezertan galarazi gabe.

f) Beharrezkoak diren ekintzak egitea etxebizitza galdu ondotik geratzen den zor ordaindugabea murrizteko akordioak negoziatzeko, kaudimengabezia ekonomikora kondentatzeak dakarren bazterketa-arriskua halatan ekiditeko.

g) Etxebizitza-alokairuan bitartekaritza soziala sustatzea, bai eta bitartekaritza komunitarioa ere.

h) Etxebizitza-arloko eskabideak eta kexak jasotzea.

i) Urtealdi-oroitidazki bat argitaratzea, bere bitartekaritzen onarpen-maila jasoko duena.

j) Bere ardurapean ipintzen zaion beste edozein zeregin, bere eginkizunekin zerikusia duena.”

Hogei. Hamaseigarren xedapen gehigarri berria eranstean da. Hona testua:

“Hamaseigarren xedapen gehigarria. Erosketa-aukerarik gabeko errentamendu-araubidekotzat kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzaren sustatzaileentzako diru-laguntzak, bai eta 60 urte baino gehiagoko edo desgaitasun bat duten pertsonentzako alokairu-apartamentu babestuen sustatzaileentzakoak ere.

1. Erosketa-aukerarik gabekotzat kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzaren eta 60 urtetik gorakoentzako edo desgaituentzako apartamentu babestuen sustatzaileek honako diru-laguntza hauek lortu ahalko dituzte:

a) Kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitzaren (eranskinik gabe) gehieneko salmenta-prezioaren % 23.

b) Kasuko kalifikazioan sarturiko etxebizitzaren (eranskinik gabe) gehieneko salmenta-prezioaren % 30, baldin eta sustatzaileak eskatu egiten badu etxebizitza babestuen babes-araubide aplikagarriaren iraunaldia 30 urtekoa izatea. Letra honetan ezarritako portzentajea ezin izango zaio batu a) letran ezarritakoari.

2. Diru-laguntzak behin-behineko kalifikazioan erabakiko dira. Behin-behineko kalifikazioa izan ondoren, sustatzaileak diru-laguntzaren % 50eraino jaso ahalko du, onetsitako diru-laguntzaren zenbatekoa estaliko duen abala aurkeztu ondoren. Diru-laguntzaren gainerakoa behin betiko kalifikazioa lortu ondoren ordainduko da.

3. Baldin eta, etxebizitzak babes-araubideari loturik dirauen bitartean sustatzaileak errentamendu-araubidea aldatu egiten badu etxebizitza-arloan eskudun den departamentuak horretarako baimenik eman gabe, jasotako kopuru guztiak itzuli beharko ditu, horrek ezertan galarazi gabe bidezkoak diren bestelako zehapen batzuk eta legezketasuna berrezartzeko ekintzak.

4. Xedapen gehigarri honetan jasotako diru-laguntza lortu ahalko dute behin-behineko kalifikazioa noiztik eta foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrera eskatzen duten babes ofizialeko

etxebizitzaren sustapenak bakarrik. Beharrezkoa izanen da kasuko etxebizitza-sustapena egitea espedientearen behin-behineko kalifikazioa eskatzen den unean 100 alokairu-eskaera baino gehiago (etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldako datuen arabera) dauden udal batean, salbu eta sozietate publikoek edo toki entitateek sustaturiko etxebizitzaren kasuan.

5. Xedapen gehigarri honetan agindutakoa erregelamendu bidez garatu edo aldatu ahalko da:

Hogeita bat. Hamazazpigarren xedapen gehigarri berria erantsen da. Hona testua:

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Etxebizitza babestuak toki entitateei eta irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoei errentan ematea.

Etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak zilegi izanen du baimena ematea etxebizitza babestuak toki entitateei eta irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoei errentan emateko, haiek etxebizitza behar dutenean ardurapean dituzten xede sozialetarako. Sustapen bakoitzean irabazi asmorik gabeko pertsona juridikoei errentan emandako etxebizitzaren gehieneko kopuruak ezin izanen du guztizko etxebizitza-kopuruaren % 6 gainditu.”

Hogeita bi. Hemezortzigarren xedapen gehigarri berri bat erantsen da. Hona testua:

“Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Irabazi asmorik gabeko elkarteek babes ofizialeko etxebizitzak sustatzea erabilera-lagapeneko araubidean.

1. Irabazi asmorik gabeko elkarte pribatuek zilegi izanen dute babes ofizialeko etxebizitzak erabilera-lagapeneko araubidean sustatzea, horretarako eraturako elkarteak badira.

2. Araubide horretan, higiezinaren jabetza, edo kasuko azalera-eskubidearen titulartasuna, elkar-teari dagokio iraunaldi mugagabez, eta ezin izanen da egin jabetza horizontalerako edo beste edozein jabetza-araubide pribatutarako eraldaketarik.

3. Elkartea osatuko dute lehenbiziko eskualdaketa jabetza-araubideko babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko baldintza orokorrak betetzen dituzten pertsona fisikoek. Etxebizitzak ez dira baremo-aplikazio bidez esleituko, eta ez da beharrezkoa izanen etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldan aurretiazko inskripzioa egina izatea; alabaina, bazkide-izaera eskuratzeko, beharrezkoa izanen da etxebizitza-arloko eskumena duen departamentuak aurretiazko baimena ematea.

tea. Bazkideek erabilera-eskubide bat izanen dute kasuko elkar-tearen estatutuek eta barne-araubideko erregelamenduak jasotzen dituzten arauen arabera esleitzen zaizkien etxebizitza eta lokalen gainean.

4. Elkarteak libreki arautu ahalko ditu bere gobernu-organismoak, bere estatutuak eta bere barne-araubideko erregelamendua, betiere demokratikoki eta “bazkide bat, boto bat” printzipio orokorrari jarraituz.

Bazkide-izaera eskuratzeko, diru-kopuru bat ordaindu beharko da, zeina elkarteak sustapenaren kostuen arabera zehaztuko baitu, bai eta higiezinaren mantentze- eta erabiltze-gastuak ere. Diru-kopuru edo sarrera-kuota hori ezin izanen da handiagoa izan etxebizitza eta esleituriko eranskinak lehendabiziko eskualdaketa saltzeko gehieneko prezio teorikoaren % 20 baino.

5. Erabilera-eskubideak iraunaldi mugagabea izanen du, eta ezin izanen zaio kargarik ezarri. Ezin izanen da eskualdatu, “mortis causa” eskualdaketa baizik. Bazkideak eskubidea izanen du elkartean baja eman dakion eskuratzeko, eta bere sarrera-kuota itzul dakion, elkarteko estatutuek ezarritako moduan. Itzuli beharreko zenbatekoa ez da ezein kasutan handiagoa izanen etxebizitza eta hari esleituriko eranskinak bigarren eskualdaketa saltzeko gehieneko prezio teorikoaren % 20 baino. Elkarteak zilegi izanen du erabilera-eskubidea berriro esleitzea babes ofizialeko etxebizitza bat lehendabiziko eskualdaketa jabetza-araubidean eskuratzeko baldintzak betetzen dituen edozein pertsona fisikori, etxebizitza arloko eskumena duen departamentuak horretarako baimena eman ondoren.

6. Bazkidea aldiroko kanon bat ordaintzera behartuta egonen da, zeina elkarteak ezarriko baitu. Kanon horren hileroko zenbatekoa ez da handiagoa izanen salmentarakoak diren babes ofizialeko etxebizitzaren jabe partikularrek etxebizitza horiek errentan ematen dituztenerako finkatuta dagoen hileroko gehieneko errenta baino.

7. Babes ofizialeko etxebizitzetarako elkarte horrela eraturako bazkideek honako laguntza ekonomikoak jasotzeko eskubidea izan ahalko dute:

– Hileroko kanonerako diru-laguntza. Horren nondik norakoak, baldintzak eta esleitze-nahiz ordaintze-prozedura, babes ofizialeko etxebizitzaren errentarientzat une bakoitzean dagoen diru-laguntzaren berberak izanen dira.

– Elkartearen lehendabiziko bazkideentzako diru-laguntza. Horren nondik norakoak, baldintzak

eta esleitze- nahiz ordaintze-prozedura, babes ofizialeko etxebizitzaren lehendabiziko eskurazailentzat une bakoitzean dagoen diru-laguntzaren berberak izanen dira. Diru-laguntza hori kalkulatu da etxebizitza babestuaren eta eranskinen gehieneko salmenta-prezio teorikoaren % 90en gainean. Diru-laguntza hori emateak ezindu egingen du, etxebizitzaren behin betiko kalifikazioaren ondoko 10 urteetan zehar, hileroko kanonaren diru-laguntzaren onuradun izatea”.

**2. artikulua.** 61/2013 Foru Dekretua aldatzea, irailaren 18koa, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituena.

61/2013 Foru Dekretua, irailaren 18koa, Etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituena, jarraian adierazitako moduan aldatua da:

Bat. 10. artikuluari 9. idatz-zatia gehitzen zaio. Hona edukia:

“9. Energia-kalifikazioaren maila

2017ko urtarrilaren 1etik aurrera behin-behineko kalifikaziorako aurkeztuak diren etxebizitza babestuen proiektuek gutxienez ere energia-kalifikazioaren B maila izan beharko dute energiaren kontsumoa dela-eta, apirilaren 5eko 253/2013 Errege Dekretuak ezartzen duenez, zeinaren bidez oinarritzko prozedura onetsi baitzen eraikinen energia-efizientziari buruzko ziurtagiriak emateko.

Arestian xedatua ez zaie aplikatuko etxebizitza babestu familiabakarrei”.

Bi. 22.3. artikuluari lerrokada berri bat gehitzen zaio. Hona:

“Aurrekoa gorabehera, erosketa-aukerari gabeko errentamendu-araubidekotzat kalifikatutako etxebizitza babestuko espedienteetan, zilegi izanen da eraikin berean elkarren ondoan aurkitzea “alokairu gaztea” programak, 60 urte baino gehiagokoentzako edo desgaituentzako alokairurako apartamentuak eta errentamendu arrunterako etxebizitzak”.

Hiru. 28. artikuluari 5. idatz-zatia gehitzen zaio, eta honako testua izanen du:

“5. Babes ofizialeko etxebizitzaren eta alokairu-poltsari atxikitako etxebizitzaren errentamendurako kontratuak berritu edo luzatzearen kasuan, betiere errentariak gizarteratze-errentaren edo horren ordezkorearen hartzaile badira, errentaren % 75eko diru-laguntza onetsiko da urtealdi berrirako”.

Lau. 45. artikuluko 1. idatz-zatiko e) eta f) letren testua aldatzen da. Honakoa dute testu berria:

“e) Etxebizitzaren espazio bizigarria zabaltzea, baldin eta horren ondoriozko azalera erabilgarria ez bada 120 metro koadro baino handiagoa. Eraikin zaharberrietuen diseinuak etxebizitzari aldame-neko espazioak gehitzearen bideragarritasun fisikoa ezinduko du.

f) Etxebizitza berriak sortzea lehendik zeuden etxebizitzak edo haien eranskin diren lokalak handiotuz edo elkartuz, baldin eta horren ondoriozko etxebizitza berriak ez badira 120 metro koadro erabilgarri baino gehiagokoak eta Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituen martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuaren II. Eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Jarduketak ezin izanen du handitu dagoen eraikinaren ingurutzailaren bolumena, ez eta haren azalera eraikia ere”.

Bost. 45. artikuluen 1. idatz-zatiari g) letra berri bat erantsen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

“g) Etxebizitza berriak sortzea, zeuden etxebizitzak edo haien lokal erantsiak zatitu edo bereiztearen ondorioz, baldin eta, betiere, sortzen diren etxebizitza berriek bete egiten badituzte Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxieneko baldintzak arautzen dituen martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuan ezarritako baldintzak. Jarduketak ezin izanen du handitu dagoen eraikinaren ingurutzailaren bolumena, ez eta haren azalera eraikia ere”.

Sei. 45. artikuluen 1. idatz-zatiari h) letra berri bat erantsen zaio, eta honela geratzen da idatzita:

“h) Eraikinetako instalazio termiko zentralizatuen efizientzia hobetzea. Horri dagokionez, eraikin edo kokagune anitzetarako energia termikoa banatzen duten hiri-beroko sareak instalazio zentralizatutzat joko dira. Gutxienez ere bero-sareen eskariaren % 50 etxebizitza-sektorearena izan beharko da.

Hobetze-ekintza horiek Eraikingintzaren Kode Teknikoko baldintzak bete beharko dituzte (CTE-DB-HE-2. Instalazio termikoen errendimendua).

Ekintza horien artean dago etxebizitzetako berokuntzako barne-instalazioaren eraztunketa, horixe denean soluzioa indarreko araudiak ezartzen duen baldintza betetzeko; hots, etxebizitzakako kontsumo-erregulazio eta -neurketarako sistemak eta elementuak instalatzeari buruzkoa”.

Zazpi. 45. artikuluko 3. idatz-zatiari d) letra berri bat erantsen zaio, eta aurrerantzean honela geratuko da idatzita:

“d) Eraikinetako instalazio termiko zentralizatuak eragiten dieten ekintzen kasuan: instalazio termiko kolektiboak deszentralizatzeak (instalazio zentralizatuetatik norbere instalazioetara pasatzea), instalazio mantentzeko ekintzak eta etxebizitzaren barruan eginiko ekintzak, salbuespen bakarra izanik etxebizitzetako berokuntzaren barne-instalazioaren eraztunketa, horixe denean soluzioa indarreko araudiak ezartzen duen baldintza betetzeko; hots, etxebizitzakako kontsumo-erregulazio eta -neurketarako sistemak eta elementuak instalatzeari buruzkoa. Ez da babesgarri izanen araudi hori betetzeko bestelako neurri batzuen gauzatzea, hala nola berokuntza-kostuak banatzeko gailuak instalatzea.”

**Zortzi.** 48. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letra aldatzen da. Honela idatzita gelditzen da:

“a) Gutxienekoa: Zaharberitze jarduketak babesgarritzat kalifikatu ahal izateko, etxebizitzei dagokien aurrekontu babesgarria, lokalak kontuan hartu gabe, jarduketaren ondoren lortuko diren etxebizitzaren kopuruaz zatituta zenbateko hau atera behar da gutxienez: 2.000 euro etxebizitza bakoitzeko”

**Bederatzi.** 50. artikuluen 6. idatz-zatia kentzen da.

**Hamar.** 55. artikuluko 1. idatz-zatian jasotako diru-laguntzen koadroko azken atala aldatzen da. Honela idatzita gelditzen da:

Familiaren diru-sarrera ponderatuak IPREM halako aldiz	Diru-laguntzaren portzentajea
IPREM halako 2,5 arte	% 10, 50 urtetik beherako eta 25 urtetik gorako eraikinetan. % 20, eraikinak 50 urte edo gehiago baldin baditu. % 45, lehentasunez zaharberitu beharreko eremuetan, edo eskatzailea edo haren ezkontidea 65 urte edo gehiagoko adinekoak badira, edo 35 urte baino gutxiagokoak. % 50, lehentasunez zaharberitu beharreko eremuetako eskuhartze orokorreko proiektuetan, edo % 40 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen etxebizitzaren barne-egokitzapenerako direnean.
IPREM halako 2,5-3,5	% 5, 50 urtetik beherako eta 25 urtetik gorako eraikinetan. % 10, 50 urteko edo gehiagoko eraikinetan. % 30, lehentasunez zaharberitu beharreko eremuetan, edo eskatzailea edo haren ezkontidea 65 urte edo gehiagoko adinekoak badira, edo 35 urte baino gutxiagokoak. % 40, lehentasunez zaharberitu beharreko eremuetako eskuhartze orokorreko proiektuetan, edo % 40 edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonen etxebizitzaren barne-egokitzapenerako direnean.
Familia ugariak, terrorismoaren biktimak, gazteak, genero-indarkeriaren biktimak, gizarteratze-errentaren onuradunak.	Koadro honetako gainerako ataletan ezarritakoa aplikatuz heldutako diru-laguntzaz gain, baldin eta norberaren erabilerarako erabiltzen bada, honakoetarako eskubidea izanen da: % 10 gehiago araubide bereziko familia ugarien kasuan eta %5 gehiago araubide orokorrekoen kasuan. % 5 gehiago terrorismoaren biktimen kasuan, Terrorismoaren biktimei laguntzeko apirilaren 28ko 9/2010 Foru Legearen 23.2 artikuluan aipatzen diren egokitzapen gastuak egiten badituzte. % 5 gehiago genero indarkeriaren biktimen kasuan, baldin eta Etxebizitza babestuaren eskatzaileen zentsua arautzen duen martxoaren 28ko 25/2011 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera izaera hori badute. % 5 gehiago, espedientearen behin-behineko kalifikazioa eskatzeko unean gizarteratze-errenta edo horren ordeko antzeko prestazio bat jasotzen duten familia-unitateen kasuan. Koadro honetan zehazturiko portzentaje gehigarriak ezin izanen zaizkio bata besteari gehitu.

Hamaika. 55. artikuluko 1. idatz-zatiko azken lerrokada kentzen da.

Hamabi. 55. artikuluko 2. idatz-zatiaren jasotako diru-laguntzen koadroko lehen atalaren testua aldatzen da. Hona testu berria:

<b>Etxe-jabeen erkidegoak</b>	<b>Diru-laguntzaren ehuneko diruz laguntzeko moduko aurrekontuaren gainean</b>
<p>Eraikingintzaren Kode Teknikoko DB.HE aplikatzeko moduko eraikuntza izan ez zuten etxebizitza-eraikinetan, eraikinaren inguratzaile termikoaren hobekuntza, haren isolatze-maila handitzearen, Eraikingintzaren Kode Teknikoak berritik eraikiak diren eraikinetarako ezarritako betekizunak erdietsiz (CTE-DB-HE.1 Energia-eskaera mugatzea).</p> <p>Horretarako, eraikinaren inguratzaile termikotzat ulertuko da kanpoaldearekin kontaktuan dauden haren eraikuntza-elementuen multzoa. Elementu horiek dira: kanpo- eta barne-fatxadak, estalkia eta ataripeen nahiz hegaleen gaineko forjatuak.</p>	% 40

Hamahiru. 55. artikuluko 2. idatz-zatian jasotako diru-laguntzen koadroari bi atal berri gehitzen zaizkio; honela gelditzen dira idatzirik:

<p>Eraikingintzaren Kode Teknikoko baldintzak (CTE-DB-HE-2. Instalazio termikoen errendimendua) eraikinetan betetzen dituzten instalazio termiko zentralizatuen efizientzia hobetzeko jarduketan kasuan.</p>	% 40
<p>Etxebizitzetako barne-instalazioaren eraztunketaren kasuan, horixe denean soluzioa indarreko araudiak ezartzen duen baldintza betetzeko; hots, etxebizitzakako kontsumo-erregulazio eta -neurketarako sistemak eta elementuak instalatzeari buruzkoa.</p>	% 20

Hamalau. 55. artikuluko 2. idatz-zatiaren amaieran lerrokada bat gehitzea:

“Irisgarritasun unibertsalari eta ororentzako diseinuari buruzko araudiarekiko egokitzapena erabatekoa dela joko da, eta horrenbestez gehieneko laguntzaren hartzaile izan ahalko da, aurreko koadroan aurreikusitako ondorioetarako, 2. taulan ezarritako balioak lortzen direnean (DA DB-SUA/2ko tolerantzia onargarriak, eranskinak aintzat hartu gabe).

Taulak ez dituen jasotzen igogailuaren kabinaren gutxieneko neurriak, aurreko lerrokadaren ondorioetarako joko da neurriak direla laurogeita hamarrekoko zabalera, ehun eta hogeitazentimetroko

sakonera (ehun eta hogeitazentimetroko ehun eta hogeitazentimetro, baldin eta angeluko aterik badago), eta ateetatik libre dagoen zabalera ez dela hirurogeita hamabost zentimetro baino txikiagoa izanen.

Hirurogeita hamar zentimetroko zabalera bider laurogeita hamar zentimetroko sakonera baino gutxiagoko kabinak ez dituela irisgarritasun-baldintzak hobetzen joko da; hori dela-eta, ez du eskubiderik izanen ekintza honetarako ezarritako laguntzak jasotzeko.

Artikulu honetan ezarritako laguntzetara biltzen diren jabe-erkidegoek sustatuak diren eraikinaren inguratzaile termikoa hobetzeko espedienteetan, haien behin-behineko kalifikazioa egiteko baldintza

izanen da proiektuari eraikinaren energia-efizientziako ziurtagiri bat atxikitzea, behar bezala erregistratua, obrak egin aurreko egoerari dagokiona. Era berean, espedientearen behin betiko kalifikazioa lortzeko, baldintza izanen da eraikinaren energia efizientziako ziurtagiri berri bat aurkeztea, erregistratua halaber, obrak amaitu ondoko ezauzgarriak biltzen dituena.

Zilegi izanen da bi ziurtagirien kostua behin-behineko kalifikaziorako aurkezten den obra-aurrekontuari eranstea”

Hamabost. 55. artikulua 3. idatz-zatiari lerrokada berri bat eransten zaio, eta honakoa izanen du testua:

“- Xedetzat eraikinetako instalazio termiko zentralizatuen efizientzia hobetzea duten espedienteetan, gehieneko diru-laguntza izanen da 6.000 euro espediente horretako etxebizitza-kopuruarekin biderkatzetik heltzen dena. Etxebizitzaren barne-instalazioaren eraztunketarako obren kasu zehatzean, hori denean soluzioa aplikatu beharreko araudiak ezarritako baldintza betetzeko, hots, kontsumoaren erregulazioa eta neurketa etxebizitzak egitearena, gehieneko diru-laguntza izanen da 3.000 euro espediente horretako etxebizitza-kopuruarekin biderkatzetik heltzen dena”

Hamasei. 57. artikuluko 3. idatz-zatiaren testua aldatzen da. Honakoa izanen du testua:

“3. Nafarroako Gobernuak, etxebizitza-arloan eskudun den departamentuaren bitartez, zilegi izanen du zaharberritze-obren kostuaren % 50eko diru-laguntza bat ematea, gehienez ere 15.000 eurokoa izanen dena etxebizitza bakoitzeko, beharrezkotzat jotzen dena:

– toki entitateen jabetzakoak diren etxebizitzetako haiek alokatu ahal izateko egoki diren baldintzak emateko. Toki entitateak, behin-behineko kalifikazioa eskatzen den unean, frogatu beharko du etxebizitzak azkeneko urtean ez direla errentamendurako edo lagapenerako izan.

– toki entitateen edo sustatzaile publikoen jabetzakoak diren behe solairuko edo solairuarterko lokalen erabilera aldatu eta etxebizitza izan daitezkeen, posible eginez bizigarritasun-zedula lortzea, aurretiaz betetzen badira hirigintzako araudia eta bizigarritasun-baldintzak, martxoaren 22ko 142/2004 Foru Dekretuaren, Nafarroako Foru Komunitateko etxebizitzetan bizi ahal izateko gutxienezko baldintzak arautzen dituenaren, II. eranskinean jasotakoak.

Zaharberritutako edo sortutako etxebizitzak errentamendu-araubidekoak beharko dira izan,

behin betiko zaharberritze-kalifikazioaren edo kasuko bizigarritasun-zedula lortzearen ondoko 10 urteetan zehar. Diru-laguntza jasotzeko, errentamendu berrien kontratuak aurkeztu beharko dira, data horietatik aurrera urtebete igaro baino lehenago. Etxebizitzaren araubide-aldaketak ekarriko du jasotako diru-laguntzaren parte proportzionala itzuli behar izatea, 10 urteko epea amaitu arte gelditzen denboraren arabera”

Hamazazpi. 57. artikulua 4. idatz-zatia gehitzen zaio. Hauxe da testua:

“4. Etxebizitza zaharberrituak errentamenduan ematen dituzten sustatzaile publikoek eta etxebizitzak aurreko atalari jarraituz zaharberritu edo sortu dituzten toki entitateek edo sustatzaile publikoek zilegi izanen dute, zaharberritzearen behin betiko kalifikazioaren edo bizigarritasun-zedula ematearen ondoko 10 urteetan zehar, errentaren zenbateko bera duen diru-laguntza bat jasotzea, baldin eta etxebizitzaren metro koadro erabilgarri bakoitzeko urtealdi-prezioa ez bada gehieneko prezio aplikagarriaren % 55 baino handiagoa eta errentarien familia-dirusarrera ponderatuak IPREM halako 1,4 baino txikiagoak badira errentamendu-kontratua formalizatzeko unean”

Hemezortzi. 58. artikulua 58. artikulua aldatzen da. Hauxe da testua berria:

“58. artikulua. Zaharberritzerako diru-laguntzak gizarte-bazterketako arriskuan dauden familia-unitateentzat.

1. Gizarte-integratioko etxebizitzak zaharberritze jarduketako babesgarriak foru dekretu honen V. kapituluaren ezarritakoari egokitzeko zaizkio, salbuespen honekin: edozein dela ere etxebizitzaren antzinatea, emandako diru-laguntza izanen da berrogeita hamar urte baino gehiagoko eraikineterako ezarritakoa, baldin eta onuradunek bete egiten badituzte era honetako jarduketako babesgarrietarako eskubidea izateko baldintzak, foru dekretu honen 68. artikuluan jasotakoak. Horretarako, zaharberritzearen sustatzaileak zilegi izanen du etxebizitza-arloan eskudun den departamentuari ziurtagiri bat eskatzea, gizarteratze-araubideari atxikia egotearena, sustatzailearen beraren izenpean.

2. Izaera horretako jarduketako babesgarrietarako eskubidea dela-eta foru dekretu honen 68. artikulua ezarritako baldintzak betetzen dituzten gizarteratze-integratioko etxebizitzaren eskuratzaileak eta gizarteratze-errentaren edo horren ordezkotako prestazio baten hartzaile diren familia-unitateak, behin-behineko zaharberritze-kalifikazioa eskatzeko unean, eskubidea izanen dute diru-laguntza bat jasotzeko, aipaturiko etxebizitzak eskuratzaile horien inguruabarrei egokitzeko



beharrezkotzat jotzen den zaharberritzearen kostuaren % 50aren zenbatekoa izanen duena. Horretarako, ez da ezein kasutan zilegi izanen gutxieneko diru-sarrera batzuk eskatzea. Aurrekontu babesgarria 2.000 euro edo gehiagokoa eta 12.000 euro baino gutxiagokoa izan beharko da. Laguntza hori bateraezina izanen da Nafarroako Gobernuaren beste edozein zaharberritze-laguntzarekin.

3. Antzemandako beharizanen arabera, zilegi izanen da, etxebizitza-arloko eskumena duen departamentuaren buruaren foru agindu bidez eta artikulu bakar honen ondorioetarako, zaharberritu beharreko higiezinak izan behar duten gutxieneko antzintasuna aldatzea, bai eta etxebizitza batek egokitasun-baldintzak betetzen dituela jotzeko beharrezkoak diren jarduketa babesgarrien esparrua zabalagotzea, zehaztea edo definitzea ere.”

Hemeretzi. 60. artikuluko 2. idatz-zatiaren testua aldatzen da. Honakoa izanen du testua:

“2. Departamentuak ofiziozko bultzada emanen dio diru-laguntza ordaintzeko prozedurari, espedientearen behin betiko kalifikazioaren bitartez obra-amaiera frogatuta gelditu ondoren, foru dekretu honen 4. eta 5. artikuluetan xedatuaren kalterik gabe.

Hala ere, behin-behineko kalifikazioa eman ondoren, konturako aurrerakinak eskuratu ahalko zaizkie, foru dekretu honen 58. artikuluen babesean emandako diru-laguntzen kasuan, Gizarte Integrazioko Etxebizitzaren edo Gizarte Integrazioko Errentamendu Etxebizitzaren Hitzarmena sinatu duten irabazi asmorik gabeko entitateei eta toki entitateei, gehienez ere 100.000 euroko kopuru berriztagarrian, erabakitako diru-laguntzaren zenbatekoa estaltzen duen abal nahikoa aurkeztu ondoren. Sortutako gastu finantzarioa ipini ahalko da gizarte-eskubideen alorrean eskumena duen departamentuak kasuko urtealdi-deialdietan diruz laguntzeko modukoak diren funtzionamendugastuen artean. Toki entitateek ez dute abala aurkezteko betebeharririk izanen.”

Hogei. 62. artikuluen 3. idatz-zatiaren testua aldatzen da. Hauxe da testu berria:

“3. Errentamendu-araubidean gutxienez ere 12 hilabete eman izana aurretiaz, eta, prezio itunduko etxebizitzaren kasuan, sei hilabete. Betiere, etxebizitzaren behin betiko kalifikazioaren datatik bost urte igaro izana eskatuko da.”

Hogeita bat. 65. artikuluari 10. idatz-zatia gehitzen zaio, eta horren idazkera hauxe da:

“10. Onartu egingen da errentamendu partekatua; kasu horretan, errentan emandako etxebizi-

tzaren gehieneko errenta izanen da gehieneko prezioei eta errenta aplikagarriaren eguneratzeari dagokiena, eta errentari bakoitzak etxebizitzaren logela-kopuruaren arabera zenbatekoa duen diru-laguntza bat jasoko du. Etxebizitza beraren onuradun diren errentarien artean ezin izanen da ahaidetasun-loturarik izan, eta ezin dute ezkontide edo bikote egonkor izan, ez eta izanak izan ere. Horrez gain, beste baldintza hauek ere bete beharko dituzte:

a) 35 urtez beherakoak izan, eta eskatzaile-errolan eskatzaile bakar gisa izena emanda egon.

b) Ondorengo ahaiderik edo ardurapeko ahaiderik ez izatea.

c) Haien diru-sarrera ponderatuak txikiagoak izanen dira IPREM halako 1,7 baino.

d) Gehienez ere logela bat okupatu beharko dute.”

Hogeita bi. 67. artikuluen testua aldatzen da. Hauxe da testu berria:

“Babesgarritzat jotzen dira etxebizitza-errentamendua, zaharberritzea eta etxebizitza erabiliaren eskuratzea; betiere, Foru Komunitateko Administrazioaren Gizarte Integrazioko Etxebizitzako programa edo jarduketetan parte hartzen duten pertsonak eginak direnean, edo Administrazio horrek toki entitateekin eta/edo irabazi asmorik gabeko entitateekin sinaturiko hitzarmenen bitartez aitorturiko jarduketetan parte hartzen dutenek.”

Hogeita hiru. 73. artikuluari hirugarren idatz-zati bat gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“3. Gizarte Integrazioko etxebizitza erosteko laguntzak eskuratzen dituzten toki entitateek gutxienez ere 10 urtez eutsi beharko diote, salerosketaren eskritura egiten den datatik kontatzen hasita, Gizarte Integrazioko Etxebizitzaren programen onuradunentzako errentamendurako erabilerrari. Etxebizitzaren araubidea aldatu egiten bada, jasotako diru-laguntzaren parte proportzionala itzuli beharko da, 10 urteko epea amaitu arte gelditzen den denboraren arabera.”

Hogeita lau. 74. artikuluen testua aldatzen da. Hauxe da testu berria:

“1. Nafarroako Gobernuak, etxebizitza-arloan eskuduna den departamentuaren bitartez, honako diru-laguntza hauek emanen dizkie Gizarte Integrazioko etxebizitza bat eskuratzen duten edo esleitzen zaien pertsonari:

a) Etxebizitza erabiliaren erosketa-prezioaren % 30, etxebizitza-eranskinik gabe.

b) Baldin eta eskuratzailerak, gainera, IPREM baino txikiagoak diren familia-dirusarrera ponderatuak baditu, diru-laguntza % 45eraino igoko da.

2. Gizarte-integratioko programa edo jarduketan parte hartzen duten pertsonen errentan emateko etxebizitza erabili bat erosten duten toki entitateei diru-laguntza bat emanen zaie, etxebizitza erabiliaren (eranskinik gabe) erosketa-prezioaren ehuneko 40koa.

3. Gizarte Integratioko Errentamendu Etxebizitza programara bildutako pertsonen honako dirusarrera hauek jasoko dituzte, kasuko errentamendu-errenta hilabetekariaren guztizko zenbatekoaren gaineko portzentajea:

Errentamenduko lehen urtean: % 90.

Errentamenduko bigarren urtean: % 75.

4. Nafarroako Gobernuak, gizarte-politikaren arloan eskudun den departamentuaren bitartez, bere gain hartu ahalko ditu gizarte-integratioko etxebizitzaren eskuratzeko, erregistro-idazpen, jabetza-eskualdatze eta, kasua bada, hipoteka-mailleguaren irekitzeari dagozkien gastuak, bai eta zerbitzu-hornidurarako kontratuen sinatzeak eratorritako gastuak ere, etxebizitzaren erosketa-prezioaren % 10eko gehieneko zenbatekoraino.

5. Irabazi asmorik gabeko entitateek zilegi izanen dute parte hartzea gizarte-politikaren arloan eskudun den departamentuak programa zehatz horietarako eta entitate haien funtzionamenduari begira urtero egiten duen diru-laguntza deialdian”

Hogeita bost. 78. artikulua kentzen da.

Hogeita sei. 79. artikulua kentzen da. Hauxe da testu berria:

“1. 60 urte baino gehiagoko pertsonentzako edo mugimendu-desgaitasun larria duten edo 100eko 65ekoa nahiz handiagoa den desgaitasun aitortua duten pertsonentzako errentamendu-araubideko apartamentu babestuek bete egin beharko dituzte foru dekretu honetan ezarritako baldintzak, bai eta Gizarte Zerbitzuen arloko baimen, lege-hauste eta zehapenen eraentzari buruzko maiatzaren 23ko 209/1991 Foru Dekretuan ezarritakoak ere.

2. Apartamentu horiek babes ofizialeko etxebizitza gisa kalifikatuko dira eta etxebizitza-mota horri aplikatzekoak diren arauak loturik egon behar dira, atal honetan ezarritako berezitasunekin.

3. Apartamentu hauen azalera erabilgarria zenbatetsiko da etxebizitza babestuei aplikatzeko den araudi orokorrean xedatuari jarraituz, eta etxebizitzaren azalera gehituko zaio apartamentu bakoitzak bere-berea duen azalera kanpo koka-

tuta dauden sukalde, jangela, egongela eta erabilerak amankomuneko aretoen azalera dagokien parte proportzionala. Apartamentuek babes ofizialeko etxebizitzetarako ezarritako gutxienezko diseinu-baldintzak bete beharko dituzte.

4. Apartamentu horietako egoiliarren hautaketa eginen da etxebizitza babestuaren eskuratzeko erordaren bidez, eta etxebizitza guztiak erreserbatuko dira aipaturiko kolektiboetakoak diren pertsonentzat edo familia-unitate bateko kide izanik bertako kide bat gutxienez kolektibo horietakoa duten pertsonentzat”

Hogeita zazpi. 84. artikulua kentzen da. Hauxe da testu berria:

“84. artikulua. Bizitegi multzoen berronartze energetikorako aurreikusitako jarduketan aurrekontu babesgarriaren behe-muga

Atal honetan xedatura bildutako jarduketan aurrekontu babesgarriaren behe-muga, etxebizitzari dagokiena eta lokalak barnean sartu gabe, zatitzen bada jarduketaren emaitza gisa lorturiko etxebizitzaren kopuruarekin, emaitza izan beharko da etxebizitza bakoitzeko 2.000 euro edo gehiagoko kantitate bat”

Hogeita zortzi. 85. artikulua hirugarren idatzatzi bat gehitzen zaio, eta testu hau izanen du:

“3. Esku-hartze orokorreko proiektuak irisgarritasunaren hobetzeari buruzko zehaztapenak jasotzen dituzenean, diru-laguntza portzentajeak % 5 handituko dira oztopo arkitektonikoak kentzeko foru dekretu honetako 55.2 artikuluan adierazitako eraikin-elementu amankomunak ukitzen dituen kasurako”

Hogeita bederati. Zazpigarren xedapen gehigarriaren testua kentzen da. Hauxe da testu berria:

“Zazpigarren xedapen gehigarria. Irisgarritasun unibertsaleko eta ororentzako diseinuko neurriak aplikatzeko zaharberritze-lanak: Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (DB-SUA) ordezkoko konponbideak, onargarriak badira.

Irisgarritasun unibertsala eta ororentzako diseinua lortzeko neurriak aplikatzeari dagokionez, honako jarduketak teknikoki edo ekonomikoki ez bideragarritzat joko dira:

1. Igogailurik ez zegoen tokian igogailu bat jarritzea eta ibilbide irisgarrietan eskailera-mailak kentzea, ezinezkoa denean obrak lehenagotiko elementu komunaren espazio fisikoan edo kanpoko espazioan gauzatzea, eta modu fedeez egiaztatuta badago lokal edo etxebizitzaren baten jabearen ezezkoa obrak araudiari jarraituz egiteko

beharrezkoa litzatekeen haren jabetzaren zatia uzteari. Horrek ez du ezertan galaraziko Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko maiaztaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 55. artikuluan xedatutakoa.

2. Obra batzuen gauzatzea DB SUAn zehaztapenetara erabat egokitzen denean ere, gauzatze horrek ezinbestean ekartzen badu bizigarritasun baldintzak edo derrigorrez bete beharreko beste arau batzuek ezarritako baldintzak betetzeari uztea.

3. DB SUAn zehaztapen guztietara egokitzen diren arren, obrak gauzatzeak behartzen badu aurrekontua % 20 handiagoa izatera bestelako konponbide alternatibo batzuen baina, konponbide horiek onargarriak direnean, irisgarritasun baldintzen hobekuntza nabarmenarengatik, etxebizitza-erlako departamentu eskudunarentzat, irizpide hauen arabera:

a) Betebeharrak murriztea DB SUAn sartutako parametro guztiak betetzea teknikoki edo ekonomikoki bideraezina den kasuetan baizik ez da onartuko.

b) Murrizketak muga izanen dira, eta ezin izanen dira aplikatu baldin eta araudian xedatutakoari gehiago doitzeko aukerarik badago.

c) Muga onargarriak dira Eraikgingintzaren Kode Teknikoaren dokumentu osagarriko 2. taulan jasotakoak (DA DB-SUA/2):

Hogeita hamar. Bigarren xedapen iragankorren testua aldatzen da. Hauxe da testu berria:

“Bigarren xedapen iragankorra. Kalifikazio epea bukatutakoan errentamendurakoak izaten segitzen duten etxebizitzetako maizterrentzako diru-laguntza.

Etxebizitzaren arloan eskumena duen departamentuak diru-laguntzak ematen ahalko dizkie errentamendurakoak izaten segitzen duten etxebizitzetako maizterrei, kalifikazio-epea eta ezarritako babes-araubidearen indarraldia bukatu denean, honako baldintza hauek betetzen badira:

a) Sustatzaileak konpromisoa hartzen badu etxebizitza babestuetarako ezarritako baldintzetan etxebizitzak errentamendurako erabiltzeko, kasuko kontratu-urtealdia amaitu arte. Epe hori sustatzailearen eskariz luzatu ahalko da, errentamendu-urtealdi osoetarako, gehieneko mugarik gabe.

b) Sustatzaileak egina izan dadila xedapen honetan ezarritakora biltzeko eskaera:

– edonoiz, kalifikazio-epea amaitzen denetik sei hilabete igaro arte, eta amaiera horretatik aurrera izanen du eragina.

– edo hurrengo urtealdi osoak amaitu baino hilabete lehenago arte”

Hogeita hamaika. Bederatzigarren xedapen iragankorren testua aldatzen da. Hauxe da testu berria:

“Bederatzigarren xedapen iragankorra. Errentamenduagatiko diru-laguntza berritu edo luzatzeko gutxieneko diru-sarrerak.

Babes ofizialeko etxebizitzaren eta alokairu-poltsari atxikitako etxebizitzaren errentamendu-kontratu berritze edo luzatzean ez da gutxieneko diru-sarrerarik eskatuko kasuko diru-laguntza eskuratu ahal izateko”

Hogeita hamabi. I. eranskineko 2. idatz-zatikoa d) letra aldatzen da. Honako testua izanen du:

“d) Alokairu-araubidean kalifikatutako prezio tasatuko etxebizitzak 15 urtez egonen dira babes-araubidearen mende, behin betiko kalifikazioa lortzen dutenetik. Alokairu-araubidean kalifikatuak diren prezio itunduko etxebizitzak beren behin betiko kalifikaziotik 10 urte igaro bitartean daude babes-araubidearen mende, eta 8 urte igaro bitartean, erosteko aukera duten prezio itunduko alokairu-etxebizitzak baldin badira”

Hogeita hamahiru. I. eranskinari 3. puntu bat gehitzen zaio, testu honekin:

“3. Erabilera-lagapeneko araubideko etxebizitzak.

Erabilera-lagapeneko araubidedun kalifikaturiko babes ofizialeko etxebizitzaren babes-araubidearen iraupena mugagabea izanen da, edo, kasua bada, azalera-eskubidearen iraupena amaitu bitartekoa, baldin eta azalera-eskubide hori gutxienez ere 50 urterako eratua bada”

Hogeita hamalau. BI koefizienteari buruz II. eranskinak dakarren azalpenean jasotako atal honen testua aldatzen da. Honela idatzita gelditzen da:

“Foru dekretu honetan xedatuaren ondorioetarako, ez dira ezein kasutan aintzat hartuko epailearen erabakiaren ondorioz gurasoek jasotako mantenuagatiko urteko kopuruak, ezta gizarte-larrialdietako laguntzak edo ohiz kanpokoak, ezaldirokoak, edozein administrazio publikok emandakoak”

**Xedapen gehigarri bakarra.** Etxebizitza babestuen gehieneko errenta-prezioak 2017an zehar.

Foru lege honetako 1. artikulua bigarren idatz-zatian etxebizitza babestuetarako ezarritako gehieneko errenta-prezioek indarrean iraunen dute

2018ko urtarrilaren 1era arte, eta data horretan, foru lege honetan ezarritako eguneratze-jardunbidea aplikatuko da.

**Lehen xedapen iragankorra.** Baremo berriaren aplikazio-data eta etxebizitzak Etxebizitza babestuaren eskatzaileen erroldaren bitartez esleitzeko erreserbak.

Foru lege honek indarra hartu ondorengo baremoa eta suertatzen diren erreserbak aplikatuko zaizkie 2016ko abenduaren 1etik aurrera hasten diren etxebizitza-esleipeneko prozedurei.

**Bigarren xedapen iragankorra.** Foru dekretu honek indarra hartu aurretik toki entitateen titulartasuneko etxebizitzetan hasitako zaharberritze-obrak.

Foru dekretu hau aldatzen duen foru legea indarrean sartzen denetik bi hilabeteko epean, toki entitateek zilegi izanen dute 57. artikuluan 3. idatz-zatiak aurreikusten duen diru-laguntza eskatzea, zaharberritze-obrak, amaituak nahiz ez, 2016an hasiak dituzten etxebizitzetarako.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.** Arau-indargabetzea.

Indarrrik gabe gelditzen dira foru lege honetan xedatutakoari aurka egiten dioten maila bereko edo apalagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapenetan lehenengoa.** Nafarroako Gobernuari ahalmena ematea testu bateratu bat egiteko.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio onets dezan, Espainiako Gobernuko Lehendakariak Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzko uztailaren 2ko 24/2013 Foru Legearen zenbait artikuluren aurka aurkezturiko konstituziokontraotasun-errekurtsioa ebazten denetik aurrera, testu bateratu bat, zeinaren bidez integratuko baitira, behar bezala erregularizatuak, argituak eta harmonizatuak, maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzkoa, eta jarraian zerrendatzen diren gainerako arauak, bai eta haiek aldatzeko onetsi diren lege-mailako arauak ere,

eta haien esparru materialari eragin diezaioketena, zeinak, kasua bada, onets bailitezke Nafarroako Gobernuak egoki den testu bateratua onetsi aurretik, aurreikuspen hori jasotzen dutenean:

Hirigintzaren eta etxebizitzaren arloan presako neurriak hartzeko ekainaren 5eko 6/2009 Legearen 11. artikulutik 17.era bitartekoak eta laugarren xedapen gehigarria.

– Nafarroako 2012rako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeko hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria.

– 24/2013 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroan etxebizitzarako eskubidea ziurtatzeko neurri urgenteei buruzkoa.

– Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk ezartzen dituen abenduaren 28ko 38/2013 Foru Legeko azken xedapenetan bigarrena.

– 27/2014 Foru Legea, abenduaren 24koa, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatu, etxebizitza arloko jarduketa babesgarriei aplikatu beharreko moduluak ezarri eta Nafarroako Etxebizitzen Erregistro Orokorra sortzen duena.

– Foru Legea, zeinaren bidez herritarrentzako laguntza-neurriak ezartzen baitira etxebizitzaren alorrean.

**Azken xedapenetan bigarrena.** Erregelamenduzko arauak emateko gaikuntza.

Baimena ematen zaie Nafarroako Gobernuari eta etxebizitzaren arloko eskumena duen kontseilariari foru lege hau aplikatu eta garatzeko beharrezkoak diren erregelamenduzko xedapen guztiak eman ditzaten. Halaber, Nafarroako Gobernuak gaitzen da erregelamenduzko xedapen bidez alda dezan foru lege honen 2. artikuluan eduki osoa.

**Azken xedapenetako hirugarrena.** Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzekoa.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Ezkerreko-Ezkerreko foru parlamentarien elkarteak foru lege proposamen bat aurkeztu dute, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzekoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

### **ERABAKIA:**

**1.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzekoa.

**2.** Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2016ko irailaren 5an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzekoa**

### **ZIOEN AZALPENA**

#### **I**

Gizarteak bere jarduketa- eta kudeaketa-moduak aldatzen eta baldintzatzen dituzten erronkei aurre egin behar die. Gizartean, enpresan, lanean, politikan, administrazioan, teknologian eta abarretan izan diren aldaketek paradigma politiko eta administratibo berri baten aitzinean paratu gaituzte. Halatan, gaur egungo kontrol-tresnak ez dira aski jarduera politikoa eta administratiboa prebenitzeko, begiratzeko eta monitorizatzeko, ustelkeria-egintzak edo jardunbide desegokiak prebenitze aldera. Gauzak horrela, beharrezkoa da erakunde bat sortzea berriaz, Administrazioaren baitan eta esparru parlamentarioan diren kontrol eta fiskali-

zazio erakundeekin koordinatuta egonen dena, politika publikoen emaitzak hobetzearen eta gardentasuna eta lan ona mailarik gorenera eramatearren.

Foru lege honen bidez sortzen da Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa. Xedea da balizko ustelkeria kasuak prebenitzea eta ikertzea, jardunbide egokiak sustatzea eta Nafarroako administrazioen eta sektore publikoaren gardentasuna eta zuzentasuna zaintzea.

Foru lege honen arabera, nazioarteko tresna juridikoekin bat, ustelkeria da norberarentzat nahiz hirugarrenentzat etekin pribatuak lortze aldera egindako botere-abusu oro.

#### **II**

Ustelkeriari aurre egiteko eta jardunbide egokiak sendotzeko, ezinbestekoa da gizarteak administrazio publikoaren kontrolean esku hartzea. Parte-hartzea ziurtatzeko, herritarrek beren erakundeekin kontrol eraginkorrean egiaz parte hartzeko tresnak sortu beharra dago, eta arduradun politikoek herritarren nahiz beren ordezkari-organoen aitzinean kontu emateko sistemak ezarri beharra dago.

#### **III**

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 49.1 artikulua babesean sortzen da Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa. Hartara, Ustelkeriaren aurkako Nazio Batuen Konbentzioa onesten duen Nazio Batuen Biltzar Orokorraren 2003ko urriaren 31ko 58/4 Ebazpena betetzen da; izan ere, konbentzio horren 6. artikuluan ezartzen da Nazio Batuetako kide diren estatuetan ustelkeria prebenitzeko erakundeak sortu beharra dagoela. Halaber, bulegoa sortzean, sakondu egiten da iruzurrari aurre egite aldera Europar Batasunak ezarritako parametroetan, zeinak Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren eta Europar Batasunaren Tratatuaren 325. artikuluan jasotzen baitira.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa abian jartzeak indartu egiten du orobat Nafarroako Foru Komunitateak betetzea Espainiako Estatuak hartutako konpromisoak, Ustelkeriari buruzko Hi-

tzarmen Zibila (Europako Kontseiluaren 174. zenbakikoa) eta Ustelkeriari buruzko Zigor Hitzarmena (Europako Kontseiluaren 173. zenbakikoa) sinatu eta berrestetik heldu direnak, bai eta ustelkeriari aurre egiteko hogeitazazpi printzipio gidariei buruzko Europako Kontseiluaren 24. Ebazpenetik (97) heldu direnak ere.

#### IV

Foru lege honek sei titulu, bost xedapen iragankor, hiru xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu.

I. titulua jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren sorrerari, izaera juridikoari eta xedeari buruzkoa da. Titulu horretan jorratzen dira bulegoaren araubide juridikoa, jardun-eremua eta eginkizunak.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak neurriak sustatu eta ezarri behar ditu ustelkeria prebenitu eta ikertzeko eta haren aurka borrokatzeko, jardunbide egokiak sustatzeko eta hobetzeko eta salatzaileak babesteko. Bere helburu nagusia da Nafarroako Foru Komunitateko erakunde publikoen jarduna indartzea, ekidite aldera horietan galera morala gertatzea eta Ogasun Publikoan txirotze ekonomikoa gertatzea, hori guztia herritarren kaltetan eta zerbitzu publikoen kalitatearen kaltetan izanen baimentzeko.

Bere jarduketa eremuak Foru Komunitatea osatzen duten erakunde guztiak hartzen ditu. Jarduketa egokien eta ustelkeriaren kontrako bulegoak enpresa eta entitate pribatuen nahiz pertsona fisikoaren aurka ere jardun ahalko du, administrazioekin daukaten harremana zein den.

Jarduketa egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa lau printzipio nagusiri jarraikiz taxutzen da, eta horiek dira bere jardunaren ardatzak. Lehendabizikoa prebentzioa da. Bulegoak zainduko du gardentasunez egiten direla publikoa denaren kudeaketa eta gizarte zibilaren parte-hartzea; publikoa denaren kudeaketan kontu-ematearen eginbeharra betetzen dela gainbegiratu du; eta jardunbide egokien kode bat jaso eta betetzea sustatuko du hautetsien, izendapen askeko kargudunen eta sektore publikoko langileen kasuan. Publikoa denaren kudeaketan interes-gatazka begiratu eta kontrolatuko du. Bere prebentzio-eginkizuna betetzean, bulegoak, administrazio publikoekin lankidetzan, ustelkeria eta jardunbide okerrak gertatzeko arriskuak identifikatu ditu, eta horiek desagerrarazteko proposamenak egiten ditu. Orobat egiten du langileen eta kargu publikoen zintotasun gutxiko jokabideei, jokabide

horien zergatuei eta jokabide horiek desagerrarazteko moduei buruzko azterlana. Publikoa denaren kudeaketan jokabide etikoak barnertzeko eta hartzeko lan egiten du. Horretarako, Bulegoak gomendioak emanen ditu jardunbide egokien kultura sustatzeko eta ustelkeria isolatzeko xedez. Halaber, aholkularitza instituzional espezializatu emanen du eta sektore publikoko langileentzako, kargu politikoentzako eta zuzendaritza-karguentzako prestakuntza-jarduerak egiten ditu. Jarduketa egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak orobat lan egiten du gure gizartean susta eta asimila daitezkeen publikoa dena errespetatzearen eta zaintzearen herritar-balioak eta iruzurra eta ustelkeria gizartearen esparru guztietan arbuizatzearenak.

Ikerkuntza da bere jardueraren bigarren ardatza. Horren helburua izanen da arduradunak identifikatzea honako kasu hauetan: funts publikoen desbideratzeak, interes-gatazka –errealak edo potentzialak–, abusuak eta botere-desbideratzea, sarbide erreserbatuko informazioen erabilera baimendu gabea, ondasun eta baliabide publikoak norberaren edo hirugarrenen onurarako aprobetxatzea, bai eta agintarien, goi kargudunen eta sektore publikoko langileen, pertsona fisikoaren edo juridikoaren bestelako jokabide irregular batzuk, Administrazio Publikoaren kalte moral edo ekonomikorako izan litezkeenak. Ikerketa bukatu ostean, baldin eta ikerketak iraun duen bitartean administrazio-irregularitasuneko zantzurik detektatu bada, zeinarentzat administrazio-zehapena aurreikusten baita, Bulegoak berehala igorriko dizkie ikerketak administrazio-organoko eskudunei, horren arabera jardun dezaten eta irregularitasun horiek berriz gertatzea eragotz dezaten. Ikerketa bat abian den bitartean delitu-zantzurik azaltzen baldin bada, jurisdikzio-organoei horren berri emanen zaie berehala. Ikerkuntza-prozedura orobat bukatzen ahalko da kasuko erakundeari gomendioak eginez erakundearen eta erakundea osatzen duten pertsonen osotasunari eragiten dioten disfuntzioak zuzentzeko edo ekiditeko.

Bulego honen jardueraren hirugarren ardatza da iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko neurrien kontrola eta ebaluazioa. Horretarako, beste erakunde batzuekiko koordinazio eta lankidetzaren egonkorrerako bideak ezarriko ditu, bere helburuak lortzeko. Bere jardunarekin osotasun, onetasun eta gardentasun mailarik handiena sustatuko du politika publikoak taxutzean eta gartzetan eta zerbitzu publikoak ematean eta baliabide publikoak kudeatzean. Halaber, ustelkeria kontrolatze eta borrokatze aldera administrazio publikoetan ezarritako tresna juridikoak eta neurri administrazioak ebaluatze balioko du.

Foru lege honen oinarriaren laugarren ardatza da gure erakundeei kalte moral edo ekonomiko eragiten dieten jokabide susmagarriak edo jarduketa irregularrak salatzen dituzten pertsonak –foru lege honen jarduketa-esparrukoak– babestea. Horren xedea da ekiditea lan baldintzak edo baldintza profesionalak okertzea gure gizartearen herritar-balioak defendatzeagatik. Horrenbestez, foru lege honetan xedatutakoarekin bat ustelkeria edo jardunbide irregularreko jokabide susmagarriak salatzen dituzten pertsonak babesten lagundu beharko du Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak.

II. tituluan, ikerketa-prozedura, salatzaileren edo informatzaileren babesa eta erreserbatutzat jotzen den dokumentazioaren tratamendua aztertzen dira.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren ikerketa-lana ofizioz abiarazten da, partikularrek, funtzionarioek edo erakundek eta pertsona juridiko publikoen zein pribatuek salatutako gertakariak aztertu ondoren.

III. tituluak bulegoaren eta zuzenbide publikoko beste erakunde eta entitateen arteko lankidetzaz jorratzen du. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa beste erakunde, administrazio publiko eta entitate publiko batzuekin koordinatuko da bere eginkizunak betetzen dituztenean bere eraginkortasuna hobetzeko, foru lege honetan ezarritako moduan eta bakoitzaren esku-menekiko erabateko errespetuz.

IV. tituluak Bulegoak egindako jardueraren emaitzak arautzen ditu; honako hauek alegia: Nafarroako Foru Komunitateko herritarrei eta Parlamentuari kontu-ematea, urteko oroitidazkia egitea eta oroitidazki hori legebiltzarrerara igortzea. Halere, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendaritzak urteko txosten bat igorriko du, azaltze aldera bulegoak zer jarduera egin dituen prebentzio eta ikerketa, kontrol eta ebaluazio eginkizunak betez. Txostena Nafarroako Parlamentuko Eskarietako Batzordean aurkeztu eta eztabaidatuko da. Hori guztia ez da eragozpen izanen aparteko txostenak edo txosten bereziak egiteko. Titulu horrek bermatzen du txosten horiei guztiei zor zaien publikitatea ematen zaiela.

V. titulua Bulegoaren giza baliabideen eta baliabide materialen zuzkidurari buruzkoa da. Bulegoak zuzendari bat izanen du. Nafarroako Parlamentuak hautatuko du, eta pertsona independente bat eta frogatutako balioa duena izan beharko du. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko langileei Nafarroako Parlamentuaren

barne-araubideko eta -governuko Estatutua aplikatuko zaie –eta ordezkio izaeraz, berriz, Foru Komunitateko langile publikoen araudi orokorra–, errespetatuz betiere, lanpostuak betetzeari dago-kionez, publikitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak. Foru Komunitateari lotutako langileei aplikatzekoak zaizkien bateraezintasunei buruzko araubide berezia ere jasotzen da bertan.

VI. tituluan zehapen-araubidea jorratzen da, arau-hausteak zehazten dira, horien larritasuna kalifikatzen da eta kasuko zehapenak ezartzen dira. Esperientziak diosku besterik gabeko gomendioak eta gaitzespen publikoa ez direla aski. Hori dela-eta, lege honek zehapenak ezartzen ditu, eta eskumen hori Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari esleitzen dio, edo diziplina arloko eskumen duten agintariei agintzen die eskumen hori balia dezaten.

Azkenik, foru lege honek hainbat xedapen gehigarri, xedapen iragankor eta azken xedapen ditu, gure ordenamendu juridikoko beste arau batzuei eragiten dietenak eta Bulegoaren helburua abian jartzea errazten dutenak.

## **I. TITULUA** **Xedapen orokorrak**

### **I. KAPITULUA** **Xedea, printzipio orokorrak,** **araubide juridikoa eta esparrua**

#### **1. artikulua.** Xedea eta izaera juridikoa.

1. Foru lege honen xedea da Nafarroako Foru Komunitateko Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzea, zeina Nafarroako Parlamentuari atxikirik geldituko baita eta zuzenbide publikoko entitate gisa taxutuko baita, berariazko nortasun juridikoarekin eta bere helburuak betetzeko jardute-gaitasun osoarekin.

2. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa sortzen da Nafarroako erakunde publikoetako eta horiek parte hartzen duten sozietate eta entitateetako ustelkeria eta iruzurrezko jardunbideak detektatu, prebenitu, ikertu eta jazaritzeko. Bulegoa sortzen da jardunbide egokien, herritar-balioen eta gobernu onaren kultura bultzatu eta errazteko herritarren artean, eta ustelkeria baztertzeko politika publikoak eta jarduketa administratiboak taxutu, bete eta ebaluatzean.

#### **2. artikulua.** Printzipio orokorrak.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak objektibotasunez erantzuten die interes orokorrei, osotasunaren, neutraltasunaren, eran-

tzukizunaren, inpartzialtasunaren, proporzionaltasunaren, konfidentzialtasunaren eta zerbitzu publikorako dedikazioaren printzipioekin bat.

Halaber, legezkoitasunaren, eraginkortasunaren, efizientziaren eta ekonomiaren printzipioak errespetatu beharko ditu helburu eta asmo publikoak betetzean.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak gardentasunaren, parte-hartzearen eta kontu-ematearen printzipioekin bat jarduten du herritarrekiko harremanetan.

### **3. artikulua.** Araubide juridikoa.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak foru lege honetan eta Administrazio Zuzenbideko arauetan xedatutakoari lotuko zaio.

VI. tituluan ezartzen diren zehapenak ezartzeko, foru lege honetan eta zehapen-prozedura administratiboko araudi indardunean ezarritako xedapenak eta printzipioak jarraikiko dira; entitateen zerbitzuko langileei egozten ahal zaizkien arau-hausteen kasuan, berriz, kasuan-kasuan aplikatu beharreko diziplina arloko funtzionario-, estatutu-edo lan-araubidea.

### **4. artikulua.** Bulegoaren jarduketa-eremua.

Honako hau da Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren jarduketa-eremua:

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa eta haren menpeko erakundeak, entitateak, fundazioak, partzuergoak eta enpresa publikoak, baldin eta partaidetza handiena edo jabari eraginkorra hari badagokio, alde batera utzita zuzenbide publikokoak edo pribatukoak diren. Partaidetza hori % 50ekoa baino txikiagoa baldin bada, Bulegoaren jarduketa-eremuak honako hauek ere hartuko ditu: zerbitzu publikoak kudeatzeko jarduerak, herri lanak egiteko jarduerak eta Nafarroako sektore publikoaren konturako laguntza eta hornidura jarduerak.

2. Nafarroako toki entitateak eta haien menpeko erakundeak, entitateak, fundazioak, partzuergoak eta enpresa publikoak, baldin eta partaidetza handiena edo jabari eraginkorra hari badagokio, alde batera utzita zuzenbide publikokoak edo pribatukoak diren. Partaidetza hori % 50ekoa baino txikiagoa baldin bada, Bulegoaren jarduketa-eremuak honako hauek soilik hartuko ditu: zerbitzu publikoak kudeatzeko jarduerak, herri lanak egiteko jarduerak eta Nafarroako sektore publikoaren konturako laguntza eta hornidura jarduerak.

3. Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta haren menpeko enteak, entitateak, fundazioak eta erakundeak.

## **II. KAPITULUA** **Helburuak eta eginkizunak**

### **5. artikulua.** Eginkizunak.

1. Honako hauek dira Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren eginkizunak:

- a) Prebentzio-eginkizuna.
- b) Ikerketa-eginkizuna.
- c) Ebaluazio-eginkizuna.
- d) Babes-eginkizuna.

### **6. artikulua.** Prebentzio-eginkizuna.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren prebentzio-eginkizunak honako jarduketa hauek hartuko ditu:

a) Ustelkeria-arriskuak identifikatzea, jokabide desagokiak edo integritatearen eta etika publikoaren aurkakoak detektatzea. Horretarako, datuak bilduko ditu eta azterlanak egiten ditu sektore publikoko iruzur-tipologiak, iruzurrak zer esparrutan gertatzen diren eta iruzurrak gertatzea errazten duten egoerak identifikatu ahal izateko.

b) Jokabide Kode Etiko berri bat taxutzea, zeinaren bidez ezarriko baita zer arau etiko eta zer jokabide-arau bete beharko dituzten Nafarroako Gobernuako kideek, goi-kargudunek, behin-behineko langileek, sektore publikoa osatzen duten entitateetako zuzendaritza-kideek eta Nafarroako Parlamentuko nahiz Toki Administrazioako hautetsiek, zeinen jarduketek honako printzipio hauek zaindu beharko baitituzte: objektibotasuna, integritatea, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, gardentasuna, eredu-garritasuna, zerbitzu publikoaren alde lan egitea, eragingarritasuna, zintzotasuna, austeritatea, genero-berdintasunarekiko errespetua eta kultura-, hizkuntza- nahiz ingurumen-ingurunearen errespetua, sustapena eta babesa. Nafarroako Parlamentuak foru lege baten mailarekin onetsiko du Kodea.

c) Administrazio Publikoan Jokabide Kode Etikoaren aplikazioa sustatu, bultzatu eta bermatzea, bai eta jardunbide egokien gida ere, zerbitzu publikoaren prestazioaren kalitatea hobetzen laguntzeko xedez.

d) Jarduera eta Interesen Erregistroa kudeatzea eta jardueren eta interesen aitortzen emandako informazioa egiaztatzea, gatazka-



kasuak ebaztea eta kargu publikoen ondasunetan gertatutako hazkunde-aldaketen justifikazioa egiaztatzea. Horretarako, Bulegoak bere ekimenez jardunen du, eta ekimena abiarazteko arrazoien txosten bat eginen du. Halaber, aitortutako informazioa egiaztatzen ahalko du eta Nafarroako Toki Administrazioako goi-kargudunen eta hautetsi publikoen bateraezintasunen araubideari buruzko gatazka-kasuak ebazten ahalko ditu, baldin eta Toki Administrazioako organo eskudunak hori erabaki badu eta kasuko hitzarmena formalizatu ondoren.

e) Aholku ematea, txostenak egitea, proposamenak egitea, arau-aldaketei buruzko proposamenak barne, sektore publikoaren jarduketak hobetzeko xedez eta disfuntzioak edo jarduketa diskrezionalak ekidin eta jardun administratibo hobetu ditzaketen irizpideak jasotzeko xedez.

f) Prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak taxutu eta programatzea prebentzioaren arloan eta iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako borrokaren arloan.

g) Organo edo erakunde eskudunak hala eskatuta –alde batea utzita publikoa ala pribatua den–, langileei prestakuntza ematen laguntzea, lege honetan aipatzen den guztiari dagokionez.

h) Beste edozein jarduketa, baldin eta horren edukia eta xedea iruzurraren eta ustelkeriaren aurkako ekintza prebentibotzat har badaiteke.

## **7. artikulua.** Ikerketa-eginkizuna.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren ikerketa-eginkizunak honako jarduketa hauek hartuko ditu, besteak beste:

a) Agintarien, goi-kargudunen eta administrazio publikoen edo fundazio eta enpresa publikoen –baldin eta horien partaidetza handiena edo jabari eraginkorra haiei badagokie, alde batera utzita zuzenbide publikokoak edo pribatukoak diren– zerbitzuko langileen jokabide irregularrak edo abusuzkoak ikertzea, kode etikoaren kalterako badira edo Nafarroako sektore publikoari zuzenean nahiz zeharka kalte ekonomikoa edo ospe-galera ekar badiezaiokete.

b) Sektore publikoaren zerbitzuko langileen berriazko eginkizunetatik heldu diren informazioak onura pribaturako erabili izana eta ondasun eta baliabide publikoak norberaren nahiz hirugarrenen onurarako baliatu izana ikertzea.

c) Sektore publikoan nahiz fundazio eta enpresa publikoetan –baldin eta horien partaidetza handiena edo jabari eraginkorra haiei badagokie, alde

batera utzita zuzenbide publikokoak edo pribatukoak diren– lanpostuak betetzean berdintasun, merezimendu, publizitate eta gaitasun printzipioak urratu izana ikertzea.

d) Ente instrumentalei agindutako mandatuen eta foru lege honetako 4. artikuluko 1., 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitako subjektuetakoren batek lizitatutako eta esleitutako kontratu administratiboen exekuzioaren jarraipena eta egiaztapena egitea.

2. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa Parlamentuko ikerketa batzordeekin lankidetzan arituko da, baldin eta espresuki eskatzen bazaio, bere eskumenekoak diren gaiei buruzko irizpenak prestatzen edo txosten bereziak egiten.

3. Ikerketa-prozesu batean zehar beste kontrol edo/eta fiskalizazio erakunde batzuei dagozkien eskumenen gaineko egintzak edo egoerak detektatzen badira, egindako jarduketan berri emanen zaio kasuko organo edo erakundeari, izan beharreko ondorioak izan ditzan. Hilabeteko epean, Bulegoari hartuko dituen neurriak jakinaraziko dizkio jarduketak igorri zaizkion organo edo erakundeak.

## **8. artikulua.** Ebaluazio-eginkizuna

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak ustelkeria prebenitzeko eta jardunbide egokiak sustatzeko neurrien eraginkortasunaren kontrol-, jarraipen- eta ebaluazio-lanak egingen ditu. Lan horiek egiten dituenean, beste kontrol-organo batzuekin koordinatuko da, bakoitzaren eskumenak eta berriazko eginkizunak errespetatuz betiere.

2. Jarduketek lagundu beharko dute osotasun, onestasan eta gardentasun mailarik handiena bermatzen kontratazio publikoko prozesuetan eta ente instrumentalei egindako mandatueta, dirulaguntza prozesuetan, erabakiak hartzeko prozesuetan, zerbitzu publikoen behar bezalako prestazioan eta ondasunen, eskumenen eta baliabide publikoen plangintza eta kudeaketa efizientean, hartara lagunduko baitute Administrazio Publikoetan ustelkeriaren kontra borrokatze eta kontrolatze aldera jada ezarritako neurri administratiboak eta baliabide juridikoak ebaluatzen.

3. Honako hauek jasoko dira jarduketa bakoitzaren ebaluazio-txostenetan:

a) Bulegoak eskatuta edo gomendatuta sartutako arau-aldaketak.

b) Errutinazko jardunbideetan edo ezarritako erabileretan Bulegoak proposatu eta onartu diren aldaketak.

c) Aurrekari administratiboei buruz proposatu eta onartutako aldaketak, kudeaketa eraginkor, garden eta ekitatibo bati eragiten ahal diotenak.

d) Eraitzen analisia.

e) Administrazio publikoekin harremana duten enpresa publikoetan jardunbide egokiak hartzea.

f) Jarduketa bakoitzean zehazten diren beste ebaluazio-adierazle batzuk.

### **9. artikulua.** Babes-eginkizuna

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak bermatuko du foru lege honetako 4. artikuluko 1., 2. eta 3. idatz-zatietan adierazitako enpresen edo erakundeen zerbitzuko langileek, beren lanpostua dela-eta erabaki edo/eta prozedura baten legezotasunari buruz informatu beharra dutenek, erabateko independentziaz eta presiorik gabe edo eginkizunetan eragin negatiboa izateko ahaleginik gabe informa dezaten.

2. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak bermatuko du balizko ustelkeria-kasuak salatzan dituzten pertsonak ez dezaten beren lan-inguruneke baldintzen okertzerik jasan edo ez daitezela izan edonolako kalte edo diskriminazioen subjektu, halako moduan non horrek ez dezan interferentziarik eragin zigor arloko prozeduretan edo ikerketetan, eta betiere 10. artikuluan ezarritako mugak kontuan hartuz. Bulegoaren zuzendaria agintari eskudunen aitzinean sustatuko ditu ekintza zuzentzaileak edo berrezarpenekoak, eta jasota utziko ditu urteko oroitidazkian.

3. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak egiaztatu beharreko gertakari edo jokabideak salatu edo informatzen dituen pertsona orok lortzen ahal du, hala eskatuz gero, bere nortasuna hirugarrenei azalduko ez zaieneko konpromiso idatzia. Hartara, delako salatzaile edo informatzailearen datuak, bai eta hura identifikatzea ekar lezaketen xehetasunak ere, sekretupean gordeko dituzte Bulegoaren zerbitzuko langileek.

## **III. KAPITULUA**

### **Mugak eta laguntza emateko betebeharrak**

#### **10. artikulua.** Mugak.

1. Edonola ere, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren eginkizunek ez dituzte ezertan ere galaraziko Nafarroako Kontuen Ganberari, Nafarroako Arartekoari edo bestelako

kontrol eta fiskalizazio erakunde batzuei dagozkienak.

2. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren eginkizunek, berebat, ez dituzte ezertan ere galaraziko agintaritzak judizialari edo Fiskaltzari dagozkienak.

#### **11. artikulua.** Laguntza emateko betebeharrak.

Beren eginkizunak garatu ahal izateko, Administrazio Publikoek eta foru lege honetako 4. artikuluan adierazitako entitateek laguntza eman beharko diote Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari, honek behar duen orotan eta ikertzen ari den gertakariekin zerikusia duen orotan. Halatan, eta kontuan hartuta jarduketan proportzionaltasunaren printzipioa, Bulegoak aipatu Administrazio Publikoen edo/eta entitateen bulegoetarako eta informazioetarako sarbidea izan ahal du.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari laguntza emateko betebeharrak daukaten pertsona fisiko edo juridikoak, publiko edo pribatuak, baldin eta bulegoaren eginkizunak betetzea oztokatzen badute edo eskatutako txostenak, dokumentuak edo espedienteak hari ematen ez badizkiote, legeak ezarritako erantzukizunetan eroriko dira.

Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak laguntza emanen die eta lankidetzan arituko dira gardentasunaren, iruzurraren eta ustelkeriari aurre egitearen harenak bezalako eginkizunak dituzten autonomia erkidegoetako, estatuko, Europako edo/eta nazioarteko erakundeak.

## **II. TITULUA**

### **Ikerketa-prozedura**

#### **12. artikulua.** Postontzia.

1. Bulegoak postontzi bat paratuko du, herritarrek kexak, salaketak edo iradokizunak aurkez ditzaten hautetsien, sektore publikoko, fundazioetako eta enpresa publikoetako –baldin eta horien partaidetza handiena edo jabari eraginkorra haiei badagokie, alde batera utzita zuzenbide publikokoak edo pribatukoak diren– langileen eta goi-kargudunen jokabideak direla-eta, baldin eta jokabide horietatik hel badaiteke ordenamendu juridikoaren aurkako aprobeixamendurik, interes-gatazkarik edo onura pribaturako erabiltzerik beren eginkizunak direla-eta dauzkaten informazioak, bai eta eginkizun horiek betetzean izandako abusurik ere.

2. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak kexa eta salaketa horiek aztertuko ditu, eta era-

bakiko du ea ikerketa-espeditierik abiarazten duen ofizioz, balizko erantzukizunak ezartzeko xedez. Ikerketa-espeditierik ez abiaraztea erabakiz gero, erabaki hori hartzeko oinarriari buruzko erantzun arrazoitua emanen zaio kexa edo salaketa aurkeztu duen partikularrari. Edonola ere, Bulegoak, urteko oroitidazkian, modu arrazoituan adieraziko du zenbat salaketa jaso dituen eta zeintzuk hartu diren aintzat eta zeintzuk ez.

3. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa orobat baloratuko ditu iradokizunak, eta urteko oroitidazkian jasoko ditu, arrazoituta, horiek onartu diren ala ez.

4. Urteko oroitidazkia argitaratu egingen da, izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudian jasotako printzipioak betez betiere.

### **13. artikulua.** Abstentzia eta errekusazioa.

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko langileak administrazio prozedura erkidean ezarritako arrazoi berberak dituzte abstenitzeko eta errekusatzeko.

2. Abstentzia eta errekusazioa idatziz planteatuko dira, horretarako arrazoiak edo arrazoiak emanda, eta zuzendariak ebatziko du, erabakiaren aurkako errekurtsoa paratzeko aukerarik gabe. Abstentzia edo errekusazioa Bulegoaren zuzendariak edo hari aurkeztutakoa bada, zuzendariaren ondokoak ebatziko du.

## **I. KAPITULUA** **Prozedura abiaraztea**

### **14. artikulua.** Abiaraztea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren jarduketak beti abiaraziko dira ofizioz, bulegoaren zuzendariak erabakita, bai bere ekimenez bai pertsona fisiko edo juridiko batek, publikoa nahi pribatua, jarritako salaketa batengatik, edo beste organo edo erakunde publiko batek aurkeztutako eskari arrazoitu batengatik. Jarduketa horiek besteak beste lotuko zaizkie objektibotasunaren, seriotasunaren, diskrezioaren, konfidentzialtasunaren eta azkartasunaren printzipioei.

2. Agintariak, zuzendaritza-karguek, bulego publikoetako eta erakunde publikoetako arduradunek eta, oro har, eginkizun publikoak betetzen dituzten edo beren lana entitate eta erakunde publikoetan lan egiten dituztenek iruzurrezko jardunbideak edo interes orokorraren aurkako jardunbide irregularrak izan daitezkeen gertakariak jakinarazi beharko dituzte, horien berri duten unean bertan, zigor arloko legediko berriazko jakinaraz-

pen-betebeharrak gorabehera. Horretarako, bide egokiak ezarriko dira.

### **15. artikulua.** Aurretiazko jarduketak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak jarduketak abiarazi, salaketak artxibatu eta jakinarazpenak edo eskabide arrazoituak egin aitzin, salaketa edo jakinarazpena eragin duten edo eskabidearen oinarrian dauden gertakarien edo jokabideen egiazkotasunaren azterketa egingen da. Egiazkotasunaren azterketa hori oinarritzeko, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak informazio edo dokumentazio gehigarria eskatzen ahalko dio salaketa-egileari, eta jarduketak abiarazteari ezetza emateko ezin izanen du aitzakia hartu salaketa-egilearen esku ez dagoen eta Bulegoak berak lor dezakeen dokumentaziorik eza.

2. Jarduketak abiarazteko erabakia hartu aitzin, bai eta egiaztatze eta ikertze faseetan ere, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa Nafarroako Foru Komunitatea osatzen duten administrazioen eta Toki Administrazioa eta sektore publiko instrumentala osatzen duten entitateen edozein zentrotan bertaratzen ahalko da behar diren datu guztiak egiaztatzeko eta dokumentazioa edo espedienteak aztertzeko, eta egoki iritziak elkarrizketa pertsonal guztiak egin ahalko ditu. Ezin izanen zaio ukatu, errekeritutako erakundeek laguntza eman behar diren printzipioaren kariaz, ikerketaren xede den jarduerarekin edo zerbitzuarekin zerikusia daukan espediente edo dokumentazio administratiborako sarbiderik. Partikularren kasuan, egiaztatzeko eta ikertzeko ahalmena hitzarmen, kontabilitate, kontratu edo emandako laguntza publikoetara mugatuko da.

3. Lege honetako 4. artikuluan ezarritako jarduketa-eremuko entitate publiko eta pribatu guztiak behartuta daude Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari ematera bere eginkizunak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia. Informazio hori aurretiaz ezarritako edo arrazoiturik –helburua adierazita– errekeritutako betebeharrak izanen da, eta ezin izanen da erabili beste ezertarako ere. Informazio erresebatuaren izaera izanen du, eta dokumentazioa bere jatorriara itzuliko da haren premia bukatzen denean.

### **16. artikulua.** Epeak.

Pertsona fisiko edo juridiko baten edo organo edo erakunde publikoen salaketa edo jakinarazpen baten ondoriozko prozedura abiarazteko erabakia 30 egun balioduneko gehieneko epean hartu beharko da, salaketa edo jakinarazpena Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien

aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari aurkezten zaion egunetik aitzina.

**17. artikulua.** Salaketak eta jakinarazpenak.

Salaketak edo jakinarazpenak Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari zuzenduko zaizkio, eta idatziz egin beharko dira. Edozein unetan egiten ahalko dira, gertakariak edo inguruabarrak lehenago hasi edo gertatu badira ere.

**18. artikulua.** Ez izapidetzeko kasuak.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak artxibatu egiten ditu pertsona fisiko edo juridikoek, organo edo erakunde publikoek aurkeztutako salaketak, jakinarazpenak edo eskaera arrazoituak baldin eta funsgabeak badira edo, kasua bada, salaketaren edo jakinarazpenaren sendotasunari eragiten dioten akatsak edo gabeziak zuzentzeko errekerimenduaren ostean osatzen ez badira.

2. Artxiboa interesdunari idazki arrazoitu bidez jakinaraziko zaio eta, kasua bada, bere eskubideak baliarazteko bide egokiak adieraziko zaizkio.

3. Baldin eta salaketak edo jakinarazpenak Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa ez den besteren batean aurkezten badira, Bulegoari gehienez ere zazpi eguneko epean igorriko zaizkio. 16. artikuluan adierazitako epeak ez dira zenbatzen hasiko harik eta salaketa edo jakinarazpena Bulegoan jaso arte.

**19. artikulua.** Abiarazteko erabakia.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari dagokio prozedura hau abiarazteko erabakia hartzea, eta interesdunari jakinaraziko zaie.

2. Erabakiak honako hauek jasoko ditu gutxienez ere:

- a) Prozeduraren instruktoarearen izendapena.
- b) Prozedura abiaraztea eragin duten gertakariak.
- c) Prozedura ebazteko organo eskuduna.
- d) Prozeduran alegazioak aurkezteko eta entzuna izateko eskubideari eta horretarako epeei buruzko oharra, adierazita ezen, ezarritako epean prozedura abiarazteko erabakiaren edukiari buruzko alegaziorik egin ezean, eduki hori erabaki-proposamentzat hartzen ahalko dela egotzitako erantzukizunari buruzko adierazpen zehaz bat jasotzen duenean.

**II. KAPITULUA**  
**Izapidetzeko prozedura**

**20. artikulua.** Izapidetzea

1. Prozedura abiaraztea erabakita, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak gertakariak argitzeko kasuko ikerketa sustatuko du. Administrazio prozedura erkideari buruzko araudi indardunean ezarritakoarekin bat izapidetuko da. Bulegoan ikerketa eta ikuskaritza eginkizunak esleiturik dauzkaten langileek agintari izaera edukiko dute frogatzearekin, eta honako hauek egiten ahalko dituzte:

a) Bertaratzea, agintari edo Bulegoaren agente izaera frogatuz, Administrazioen edo entitate publikoen edozein bulegotan edo zerbitzu publikori atxikitako zentrotan, lege honen esparruaren barruan, informazioa eskatzeko, egiaztapenak in situ egiteko eta dokumentuak, espedienteak, liburuak, erregristroak, kontabilitatea eta datu-baseak aztertzeke, zein ere den horiek grabatuta dauden euskarria, bai eta erabilitako ekipoak ere.

b) Egoki irizitako elkarrizketa pertsonalak egi-tea, bai kasuko egoitza administratiboan, bai Bulegoaren egoitzan. Elkarrizketatuek eskubidea dute beraiek izendatutako pertsonaren laguntza izateko, baita abokatu batena ere.

c) Sartzea, legedi indardunak horretarako modua ematen duen neurrian, banku-entitateen kontu korronteei buruzko informazioan, kasuko errekerimendua eginez, baldin eta horietan egin ahal izan bada kontratu publikoen esleipen prozedurekin lotutako ordainketarik edo funts-xedapenik edo diru-laguntza publikoen ematerik.

d) Erabakitzea, jaso daitezkeen datuen kalte-gabetasuna bermatze aldera, lortutako dokumentuen fotokopia kautotuak egin daitezzen, zein ere den biltegiatuta dauden euskarria.

2. Salatuak edo bere nagusiek erantzun idatzia emateari ezetza ematen badiote edo justifikaziorik gabe berandutzen badira, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak bere ikerketa-jarduketarako jokabide oztopatzaile gisa hartu ahalko du hori. Eta jasota utziko du bere urteko oroitidazkian, kasuko zehapena ezarri ala ez.

3. Baldin eta funtzionarioek eta langile publikoek eskatu zaizkien txostenak igortzeari justifikaziorik gabe uko egiten badiote, edo ezarritako epea txostenak igorri gabe pasatzen uzten badute, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak eskatzen ahalko die azal dezaten zer arrazoi izan duten horrela jokatzeko, diziplina edo

zehapen espediente bat abiarazteko aukera baztertu gabe.

#### **21. artikulua.** Iraungitzea.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren ikerketa-jarduketek ezin izanen dute iraun sei hilabete baino gehiago, ikerketa abiarazteko erabakia hartzen denetik aitzina, salbu eta kasuaren konplexutasuna dela-eta epe hori luzatzea komeni bada; edonola ere, luzatzeko erabaki hori espresuki eta arrazoiturik hartu beharko da, eta gehienez ere beste sei hilabeterakoa izanen da.

#### **22. artikulua.** Datuen erreserba.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren jarduketek denik eta erreserbarik gorena ziurtatu beharko dute betiere, ikertutako pertsonarentzako edo entitatearentzako kalteak ekiditeko eta jarduketa horien ondorioz abiaraz litekeen prozedura jurisdikzionalaren edo administratiboaren eraginkortasuna babesteko.

2. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak ezin du izaera pertsonaleko daturik zabaldu, ezta beste pertsona batzuei edo erakunderi jakinarazi ere, datu horiek ez badira, xedapen indardunekin bat, pertsona edo erakunde horiek beren eginkizunak direla-eta ezagut ditzaketenak. Eta ezin izanen ditu datu horiek erabili foru lege honetakoak ez diren beste xede batzuetarako.

3. Bulegoak berezkoa duen jarduketa-eremuaren barruan eta dagozkion eginkizunak betetzean bildutako aurrekariak agintari eskudunari eman behar zaizkio, bidezkoa denean abiaraz daitezen zehapen-prozedura administratiboak edo zigor arloko kasuko jarduketak.

4. Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudi indardunaren arabera tratatuko dira izaera pertsonaleko datuak.

#### **23. artikulua.** Kautelazko neurriak.

Prozedurak izapidetzen diren bitartean, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak organo eskudunari eskaera arrazoitua egiten ahalko dio, egoki diren kautelazko neurriak har ditzan, baldin eta abian diren ikerketen emaitzak eta eraginkortasunak edo interes publikoak hala eskatzen badute.

Organo eskudunak neurri horiek erabaki eta mantendu beharko ditu, harik eta Bulegoaren zuzendaritzak aurkakoa eskatu arte, eta, betiere, bere jarduketan emaitza jakinarazten duenean.

#### **24. artikulua.** Ebazpena.

1. Izapideak bukatutakoan, instrukzioaz arduratzen den pertsonak honako hauek ebazten ahalko ditu:

a) Prozedura amaitu, jarduketak artxibatuta, ebazpen-proposamenik egin beharrik gabe.

b) Zehapen-prozedura bat abiarazi, lege honetan xedatuarekin bat.

c) Abiarazitako jarduketa guztiak Fiskaltzari edo guardiako epaitegiari igorri, baldin eta Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak hasitako ikerketaren ondorioz Bulegoak uste badu delitu izan daitezkeen jokabideak edo gertakariak eman direla.

d) Kontuen Auzitegiaren jurisdikzioari berri eman, baldin eta ikerketetatik balizko kontabilitate-erantzukizun bat, zuzena nahiz subsidiarioa, ondoriozta badaiteke.

e) Kasuko administrazio publikoko arduradunei helarazi ikertutako gertakariak direla-eta hartu beharreko kautelazko neurriei edo behin betiko neurriei buruzko proposamena, baldin eta legez kontrakoak badira, eta agintari eskudunak premia-tu kasuko espedientea abiaraz dezaten, kasua bada, ustez gertatu diren diziplina-erantzukizunak garbitzeko. Kasu horretan, hartutako neurriei edo, kasua bada, neurririk ez hartzeko arrazoiei buruz txosten bat aurkeztu beharko du Administrazioak hilabeteko epean Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoan.

f) Xedapenak taxutzea edo aldatzea proposatu bere eskumenaren esparruan (erregelamenduak, zirkularrak eta jarraibideak).

2. Bulegoaren zuzendariak, instrukzioaz arduratzen den pertsonaren ebazpen-proposamena ikusita, ebazpen arrazoitua eman beharko du hamar eguneko gehieneko epean, ebazpen-proposamena jasotzen denetik aitzina.

### **III. KAPITULUA**

#### **Salaketa-egilearen babesa eta dokumentu erreserbatuak**

#### **25. artikulua.** Salaketa-egilearen babesa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren jardunak arreta berezia jarriko du lege honen bidez babestu nahi diren ondasunen eta printzipioen balizko urraketa-kasuak salatzen dituzten pertsonak babesteko. Halatan, Bulegoa arduratuko da pertsona horiek ez dezaten paira bakarterik, jazarpenik edo beren lan-ingurune baldintzen

okertzerik, edo ez dezaten arriskurik izan beren herritar-jokabidearen ondorioz inolako kalterik edo diskriminaziorik pairatzeko.

2. Salatzaileak babestuta egon behar du iruzurra edo ustelkeria izan daitekeela uste duen gertakari bat salatzean izan duen herritar-jokabidearen ondorioz jasan lezakeen kalte ekonomiko eta moralaren aitzinean, diskriminazio ororen aitzinean eta bere lan-inguruneko baldintzak okertzearen aitzinean. Hartara, pertsona horrek bere anonimotasuna gordetzen ahalko du, eta Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak ezin izanen dizkie ezagutzera eman bere datuak ez ukitutako Administrazioari, entitateari edo funtzionarioari, ez hirugarrenei ere; halere, hori guztia ez da eragozpen izanen epaileak beharrezkoak diren babesneurriak har ditzan ikertutako gertakariak delitua izan badaitezke.

3. Baldin eta salatutako gertakariak arauhauste penala izan badaitezke, Prozedura Kriminalaren Legean eta Auzi Kriminaletan Lekukoak eta Adituak Babesteari buruzko abenduaren 23ko 19/1994 Legean ezarritakoarekin bat ematen da babes hori, salatzailea horri atxikirik geldituko baita.

#### **26. artikulua.** Informazioaren tratamendua.

1. Ukitutako edozein pertsonak ikerketa batean zehar bere lekukotasunaren nahiz bere laguntza pertsonalaren bidez eman dezakeen informazioak informazio erreserbatuaren izaera edukiko du; hori guztia, hala ere, ez da eragozpen izanen delitu izan daitezkeen egitateen salaketari buruz Prozedura Kriminalari buruzko Legeko I. tituluko II. liburuan xedatutakoa ezartzeko.

2. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak Administrazioak eta lege honetako 4. artikuluan adierazitako entitateak premiatzen ahalko ditu bere eginkizuna betetzeko beharrezkotzat jotzen dituen dokumentu guztiak eman diezazkitoten, legearekin bat isilpeko dokumentu gisa sailkatutako espedienteak edo dokumentuak barne, eta ukitutako Administrazioak ezin izanen ditu horiek ukatu, salbu eta organo eskudunak erabaki arrazoitua ematen badu, eta horri buruzko ziurtagiri negatiboa ematen du. Baldin eta isilpekoa dela deklaraturako dokumentua erabakigarria bada abiarazitako ikerketaren eraginkortasunari begira, Nafarroako Parlamentuari horren berri eman zaio.

3. Isilpekoak direla deklaratu eta Bulegoari emandako espedientei dagokienez, hartu beharreko babes eta segurtasun neurriak hartuko dira.

### **III. TITULUA** **Beste erakunde eta entitate** **batzuekiko lankidetzak**

**27. artikulua.** Kontuen Ganbera eta Nafarroako Arartekoa

1. Beharrezkoa denean, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak laguntza eskatuko die, Nafarroako Parlamentuaren Mahairen bidez, Kontuen Ganberari edo/eta Nafarroako Arartekoari. Halaber, Bulegoak bere txosten guztien kopia igorriko die Kontuen Ganberari eta Nafarroako Arartekoari.

2. Urtearen hasierarekin, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak Nafarroako Arartekoari eta Kontuen Ganberari jakinaraziko die urteko bere jarduketa-plana, balizko bikoiztasunak eta interferentziak ekiditeko xedez.

**28. artikulua.** Nafarroako Parlamentua.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak, Parlamentuko ikerketa-batzordeek nahiz Parlamentuko beste edozein batzorde eskatuta, laguntza eman beharko die batzorde horiei, foru lege honen xede diren gaiei edo jarduketei buruzko irizpenak edo gomendioak taxutzeko.

2. Bulegoaren zuzendaritza Parlamentuko batzordeetara joanen da deitzen zaionean, bere jarduketak zertan diren informatzeko. Halaber, batzorde horietan agerraldia egitea eskatzen ahalko du, egoki iritziz gero.

**29. artikulua.** Beste erakunde batzuk.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa beste erakunde edo entitate publiko edo pribatuekin lankidetzan arituko da, iruzurra eta ustelkeria prebenitu eta borrokatzeko.

**30. artikulua.** Gizarte zibila.

Nafarroako jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak gizarte zibilarekiko topaguneak eta trukerako guneak sustatuko ditu aldian-aldian, haren ekarpenak jasotzeko.

### **IV. TITULUA** **Jarduna**

#### **I. KAPITULUA** **Kontu-ematea**

**31. artikulua.** Urteko oroitidazkia.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulego-

ak urtero azalduko du egin duen jarduera, oroitidazki edo txosten bat eginez, zeineatan jasoko baititu Bulegoak prebentzioaren, ikerketaren, kontrolaren eta ebaluazioaren arloko bere eginkizunak direla-eta egindako ekintzak, bai eta egin dituen prestakuntza eta aholku-emate bereziko ekintzak ere.

Oroitidazki horretan jasoko ditu, gutxienez ere, aurkeztutako salaketen kopurua eta izaera, bai eta ikerketaren xede izan direnena eta horien emaitza, zehaztuta zer iradokizun edo gomendio egin zaion Administrazioari eta zenbat prozedura abiarazi diren Bulegoaren ekimenez sektore publikoko langileen eta kargu publikoen aurka, bai administrazio-izaerakoak, bai izaera judizialekoak. Txostenen orobat jasoko dira ikuskariak idatziz adierazitako desadostasunak eta prestatzaileek egindako ebaluazioak eta proposatutako arau-aldaketak.

2. Txostenen ez da jasoko ikerketa-prozeduran interesa dutenak publikoki identifikatzea ahalbidetzen duen datu eta aipamen pertsonalik, ikerketa abian den bitartean. Izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko araudi indardunaren arabera tratatuko dira izaera pertsonaleko datuak.

3. Txostenak eranskin bat edukiko du, zeinetan eginen baita Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren likidazioa, txosten hori zein ekitaldikoa den, ekitaldi horrena. Kontuen Ganberak ikuskatuko ditu Bulegoaren kontuak.

4. Urteko txostenaren laburpen bat ahoz eginen da Nafarroako Parlamentuko kasuko batzordearen aitzinean.

### **32. artikulua.** Txosten bereziak.

1. Gertakarien larritasuna edo urgentzia kontuan hartuta, Bulegoaren zuzendaritzak edozein unetan aurkezten ahalko ditu komunikazio edo txosten bereziak Nafarroako Parlamentuko kasuko batzordeari zuzendurik edo, kasua bada, Legebiltzarreko Batzorde Iraunkorrari zuzendurik.

2. Urteko oroitidazkia eta txosten bereziak, bai eta Nafarroako Parlamentuak har litzakeen ondorioak ere, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

### **33. artikulua.** Txostenen edukia.

1. Txostenek jaso egin beharko dute, kasua bada, ikusi diren arau-hausteen, abusuen edo ustezko irregulartasunen azaleko azalpen bat, eta horiek zuzentzeko hartu beharreko neurriak hartzea proposatuko da.

2. Anomaliarik edo erantzukizunik ikusi ez baldin bada, horrela jaso beharko da kasuko txostenen.

3. Txostenak ukitutako organo edo entitateei igorritzko zaizkie, hartu beharreko neurriak har ditzaten txostenen edukiarekin bat. Ukitutako organo edo entitateek Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari hiru hilabeteko epean jakinarazi beharko dizkiote hartutako neurriak.

### **34. artikulua.** Herritarrei kontu ematea.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak herritarrei kontu emanen die administrazioetako eta lege honetako 4. artikuluan adierazitako gainerrako entitateetako iruzurrari eta ustelkeriari buruzko politikak eta jardunbideak prebenitu, ikertu eta ebaluatzearen arloan egindako kudeaketa dela-eta. Horretarako, herritarrak behar bezala informata egoteko behar diren baliabideak edukiko ditu. Bere jardunaren emaitzak hedabideei emanen dizkie, eta gizarte zibilarekiko topaketak antolatuko ditu, bere jardunaren eta egindako jarduketaren emaitzen berri zuzenean emateko, bidean aurkitutako zailtasunak edo errezeloak adieraziz.

## **II. KAPITULUA** **Gomendioak eta irizpenak**

### **35. artikulua.** Gomendioak.

Gomendio izaera edukiko dute Bulegoak ofizioz nahiz 4. artikuluan adierazitako subjektuetako edozeinek eskatuta egindako proposamenek, zeinen bidez bilatzen baita arrisku egoerak edo jokatibide desegoki edo integritatearen aurkakoak hobetzea. Alde batek eskatuta egindako eskariak Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren bidez bideratuko dira.

Halaber, Nafarroako Parlamentuko kideek, modu indibidualean nahiz Legebiltzarrean eraturako batzordeen edo eratzen ahal diren batzordeen bidez, Nafarroako Parlamentuko Mahaiari idatzi arazoitu bat zuzenduz, eskatzen ahalko dute Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak esku hartzea arau juridikoak taxutzean laguntza emateko eta proposamenak egiteko. Halakoetan, Bulegoaren ekarpenek ere izanen dute gomendioen izaera.

### **36. artikulua.** Irizpenak.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak laguntza emanen die Parlamentuko batzordeei edo 4. artikuluan adierazitako subjektuetako edo-

zeini, haiek hala eskatzen badute, kode etikoaren eta gobernu onaren kaltetan diren auziei buruzko irizpenak prestatzeko Nafarroako administrazio publikoen eta haien mendeko sektorearen multzoa dela-eta.

Alde batek eskatuta egindako eskariak Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren bidez bideratuko dira.

## V. TITULUA

### Giza baliabideak eta baliabide materialak

#### I. KAPITULUA

##### Bulegoaren zuzendaritza

**37. artikulua.** Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendaritza hautatzea, izendatzea, bateraezintasunak eta kargu-uztea.

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak zuzendari bat edukiko du, bere kargua erabateko independentziarekin eta objektibotasunarekin beteko duena Bulegoaren berezko eginkizunak betetzean eta berezko eskumenen esparruan, eta legedi indardunari men eginez jardunen du beti.

2. Zuzendaria ezin izan da afiliatuta egon inolako alderdi politiko, sindikatu edo elkarte profesional edo enpresa-elkartetan.

3. Zuzendariaren agintaldia sei urtekoa izan da, Nafarroako Parlamentuak hautatzen duenetik zenbatuta, eta ezin izan da berriz ere hautatua izan lanpostua utzi duenetik gutxienez ere sei urte igaro arte.

4. Zuzendaria Nafarroako Parlamentuak hautatuko du, beren eskubide zibil eta politikoak dituzten eta kargua betetzeko behar diren egokitasun, sustraitze, zintzotasun eta profesionaltasun baldintzak betetzen dituzten adin nagusiko herritarren artean. Goi mailako unibertsitate tituluaren jabe izan beharko du eta hamar urte baino gehiagoko lan-jarduera edo jardueraren profesionala eduki beharko du. Halaber, nafartasun politikoa izan behar du.

5. Kargurako hautagaiak parlamentu-taldeek edo/eta beren jardueraren Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten gizarte-erakundeek proposatuko dizkiote Nafarroako Parlamentuari.

6. Bulegoaren zuzendaria Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak hautatuko du, gehiengo osoz.

7. Nafarroako Parlamentuko lehendakariak izendatuko du Jardunbide egokien aldeko eta

ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendaria, zeina Nafarroako Aldizkari Ofizialean izendapena argitaratu eta hilabeteko epean hartuko baitu karguaren jabetza.

8. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendariak eskumen osoa edukiko du Bulegoaren gobernuari, barne araudia-ri eta bere zerbitzuko langileei dagokienez. Eskumen horiek beteko ditu titulu honetan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuarekin bat eta, ordezko izaeraz, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginean ezarritakoarekin bat.

##### **38. artikulua.** Bateraezintasunak.

1. Bateraezintasunak dira Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendari kargua eta beste ordezkaritza-kargu, kargu politiko edo administrazio-eginkizun oro, lanbide-, merkataritza- edo lan-jarduera oro, bai eta zuzendaritza- edo aholkularitza-kargu oro ere.

2. Zuzendariak eginkizun horretarako arduraldi eskusiboa izan da eta kargu publikoen bateraezintasunei buruzko araubidearen mende egonen da.

3. Bulegoaren zuzendaria bateraezintasun-egoeraren batean eroriz gero, jardueraren bateraezintasun hori utzi beharko du izendatu ondoko hilabetean eta karguaren jabetza utzi baino lehen. Hori egin ezean, izendapena onartzen ez duela ulertuko da. Ezusteko bateraezintasun-kasuan, hilabeteko gehieneko epean erregularizatu beharko du bere egoera.

4. Nafarroako Parlamentuko Foru Araubide Batzordeak izan da eskumena Bulegoarekin zerikusia izan dezaketen bateraezintasun-egoerei buruzko eztabaida edo zalantza oro batzordearen botoen gehiengo osoarekin argitzeko. Bere irizpena Parlamentuko Osoko Bilkurari aurkeztuko dio, hura jakinaren gainean egon dadin.

##### **39. artikulua.** Kargu-uztea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendariak honako arrazoi hauetakoren batengatik utziko du kargua:

a) Karguari uko egin edo hilez gero.

b) Agintaldia bukatzeagatik.

c) Ezusteko bateraezintasunagatik.

d) Ebazpen judizial irmo baten bidez deklaratu-tako ezgaitasunagatik.



e) Ebazpen judizial irmo baten bidez eskubide politikoak baliatzeko desgaitzagarriak.

f) Epai irmoz emandako kondenagatik, delitua egiteagatik.

g) Karguaren betekizunak betetzean erakutsitako zabarkeria nabarmen eta larriagatik.

h) Nafartasun politikoa edo eskubide zibil eta politikoak galtzeagatik.

2. Arrazoia baldin bada 1. idatz-zatiko g) letran ezarritakoa, Parlamentuko kasuko batzordeak proposatu behar du zuzendariaren kargu-uztea, eta zuzendaritzaren titularrak eskubidea izanen du batzorde horretara joateko eta hitza hartzeko. Kargu-uztea Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak erabaki beharko du, botoen hiru bostenen gehiengoarekin. Gainerako kasuetan, Nafarroako Parlamentuko lehendakariari dagokio kargu-uztea erabakitzea.

3. Zuzendariak kargua utzi ondoren, beste bat izendatzeko prozedura abiaraziko da. Kargua uzteko arrazoia baldin bada 1. idatz-zatiko b) letran ezarritakoa, zuzendaritzaren titularrak jardunean jarraituko du bere karguan harik eta zuzendari berria izendatu arte. Gainerako kasuetan, zuzendariaren ondokoak bere gain hartuko du zuzendaritza, zuzendari berria izendatu arte.

**40. artikulua.** Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendaritzaren eginkizunak.

a) Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa ordezkatzeko.

b) Bulegoaren jardueren urteko oroitidazkia, bai eta Bulegoak egiten dituen txosten bereziak ere, Parlamentuari aurkeztea eta informatzea.

c) Bulegoaren ikerketa arloko politikaren lehen-tasunak urtero ezartzea eta, argitaratu aitzin, Parlamentuko Foru Araubideko Batzordeari, Arartekariari eta Kontuen Ganberari igortzea, horien berri izateko eta koordinatzeko.

d) Bulegoaren eginkizunak betetzean gertatzen diren gorabehera larri guztiak Parlamentuari jakinaraztea, bai eta eginkizun horiek betetzean agertutako oztopoak edo lankidetzak ere.

e) Aholkularitza eta kontroleko barne-prozedura ezartzea, legezketasunaren jarraipena barne, pertsonen prozedura-bermeekiko eta funtsezko eskubideekiko errespetuari dagokionez, besteak beste.

f) Egin beharreko lanak Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko langileen artean banatzea.

g) Jardueren eta interesen erregistroa kudeatzea.

h) Langileen buruzagi izatea, haien jarduketak zuzenduz eta koordinatuz, bai eta haien izendapena eta kontratazioa eginez ere.

i) Barne araubidearekin eta gobernuarekin lotutako arlo guztiak antolatzearen eta zuzentzearen arloan dituen ahalmenak betetzea, bai eta Bulegoaren berezko gastuak baimentzea eta ordainketak agintzea ere.

j) Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren urteko aurrekontua prestatzea, zeina Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuan sartuko baita.

k) Ikerketa batean independentzia eta objektibotasuna arriskuan jar daitezkeenean langileekin eta langileen artean gerta daitezkeen interes-gatazkak ebaztea.

l) Jendeari emandako informazio guztia modu neutral eta inpartzialean ematen dela eta horren hedapena ikerketen konfidentzialtasuna errespetatuz egiten dela bermatzea.

m) Bulegoko langileen errekusazioari eta abstentzioari buruz jasotako eskaerak ebaztea.

n) Foru lege honetako manuak hausteagatikozehapenak ezartzea.

2. Zuzendariak ahalmen eta gaitasun tekniko frogatuko pertsona bat izendatzen ahalko du, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoko langile ez-administrariaren artetik, zuzendariaren ondoko kargurako, zeinari aplikatuko baitzaizkio zuzendariari dagozkion hautagarritasun eta bateraezintasun baldintzak. Zuzendariaren ondokoari dagozkio Bulegoaren zuzendariari laguntzea hark agintzen dizkion eginkizunetan, hura ordezkatzeko aldi baterako absentsia edo ezgaitasun kasuan eta legearekin bat hark eskuordetzen dizkion eginkizunak bere gain hartzea.

## II. KAPITULUA

### Bulegoaren zerbitzuko langileak

**41. artikulua.** Izendapena, printzipioak, bateraezintasunak eta kargu-uztea.

1. Administrazio publikoetako funtzionarioek edo/eta horretarako hautatutako langileek beteko dituzte Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren lanpostuak, lanpostu bakoitzari esleitutako eginkizunen izaerarekin arabera. Langile horiek behartuta daude beren eginkizuna betetzean jaki-

ten dituzten izaera pertsonaleko datuen sekretua gordetzera, baita kargua utzi ondoren ere.

2. Bulegoaren zerbitzuko langileak berdintasunaren, publikitatearen, merezimenduen eta esleitutako eginkizunaren arabera gaitasunaren printzipioen arabera hautatuko dira.

3. Lanpostuen zerrenda Bulegoaren zuzendaria onetsiko du.

4. Bulegoari atxikitako langileek behar bezalako gaitasun tekniko eta prestakuntza etengabea izan dezaten, hezkuntzako hitzarmenak, akordioak edo protokoloak sinatzen ahalko dira unibertitateekin edo goi mailako edozein hezkuntza-entitateekin eta izaera bertuko bulegorekin, autonomia erkidego batekoa, estatukoa, Europar Batasuneko edo nazioartekoa izan.

#### **42. artikulua.** Ikuskariak.

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren ikuskariak goi mailako titulazioa daukaten pertsonen arteko oposizio-lehiaketa bidez hautatuko dira.

2. Ikuskariak agintari-izaera edukiko dute, egiaztatzen eta kasuko lege-baldintzak betetz formalizatzen dituzten dokumentuetan jasotako gertakarien egiazkotasunaren presuntzioaren ondorioetarako.

3. Ikuskariak zuzendariaren bateraezintasun-baldintza berberak beteko ditu.

#### **43. artikulua.** Ikuskariaren eginkizunak.

1. Ikuskaria da, espezializazioaren eta lanbanaketaren printzipioen arabera, ikerketa-, ikuskaritza- eta, dagokion neurrian, prebentzio-organoa.

2. Ikuskariaren eginkizunak dira:

a) Foru lege honetako 7. artikuluan aipatzen den ikerketa-eginkizuna.

b) Bulegoaren zuzendariari ikerketa-txostenak eta atera litezkeen ondorioak proposatzea, azter eta onets ditzan.

c) Zuzendariari helaraztea bere lana hobeki egiteko beharrezkotzat jotzen dituen proposamenak.

d) Zuzendariak esleitutako lana planifikatzea.

e) Zuzendariak esleitzen ahal dizkion guztiak.

3. Desadostasunik baldin badago ebazpen edo txosten proposamen bat egin duen ikuskariaren eta behin betiko ebazpenaren edo/eta txostenaren artean, ikuskariak idatziz jasotzen ahalko du des-

adostasun hori, eta txosten edo/eta ebazpenean eranskin gisa gehitzen ahalko du.

#### **44. artikulua.** Prestatzailea/aholkularia.

1. Lizentziatu bat egonen da, gutxienez ere. Bera izanen da Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren prestakuntza eta ebaluazio arloaren arduraduna, eta goi mailako titulazioa daukaten pertsonen arteko oposizio-lehiaketa bidez izanen da hautatua.

2. Prestatzaileak/aholkulariak zuzendariaren bateraezintasun-baldintza berberak beteko ditu.

#### **45. artikulua.** Prestatzailearen eginkizunak.

1. Prestatzailea da, espezializazioaren eta lanbanaketaren printzipioen arabera, ebaluatzearen, prestatzearen eta, dagokion neurrian, prebentzioaren arduraduna.

2. Honako hauek dira prestatzailearen eginkizunak:

a) Jardunbide okerren eta ustelkeriaren aurkako borroka eta prebentzio neurrien eraginkortasuna kontrolatu eta ebaluatzea.

b) Jardunbide irregularren prebentzioaren eta jardunbide egokien arloko prestakuntza- eta sentibilizazio-politikak taxutzea, bai eta ebaluazio-adierazleak taxutzea ere, bai administrazio publikoentzat edo haien mendeko entitateentzat, bai entitate pribatuentzat.

c) Zuzendariari helaraztea bere lana hobeki egiteko beharrezkotzat jotzen dituen proposamenak.

d) Zuzendariak esleitutako lana planifikatzea.

e) Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendariak esleitzen ahal dizkion guztiak.

#### **46. artikulua.** Bulegoko langileak:

Nafarroako jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak bere eginkizunak bete ahal izateko beharrezkoak diren langileak –teknikariak, administrariak, laguntzaileak eta mendekoak– edukiko ditu. Langileak oposizioz edo oposizio-lehiaketa bidez hautatuko dira.

### **III. KAPITULUA**

#### **Baliabide materialak eta finantzaketa**

#### **47. artikulua.** Aurrekontua eta kontabilitatea

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak esleitu zaizkion eginkizunak eraginkortasunez eta ongi betetzeko beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak eduki behar ditu.

2. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren funtzionamendurako beharrezkoa den zuzkidura ekonomikoak kontusail bereki bat edukiko du Nafarroako Parlamentuaren aurrekontuetan.

3. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendariak prestatuko du arestiko idatz-zatian aipatzen den aurrekontuen proiektua, zeina Nafarroako Parlamentuaren Mahaiari igorriko baitio, izan beharreko ondorioak izan ditzan.

4. Bulegoaren aurrekontua Nafarroako Foru Komunitateko sektore publikoko entitateei buruzko araudiari lotuko zaio.

5. Bulegoaren kontabilitatea kontabilitate publikoaren printzipioei eta baimen, xedapen, obligazio eta ordainketa sistemari lotuko zaie, aurrekontu-kontrola ziurtatze aldera.

6. Bulegoaren urteko oroitidazkiak aurrekontuaren likidazioa jasoko du.

7. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren ondare- eta kontratazio-araubidea, zeina bere organo berekien bidez beteko baita, Foru Komunitateko Administrazioarako araubidea bera izanen da, Nafarroako Parlamentuaren mendeko organo bat izatetik heldu diren espezialitateekin.

#### **48. artikulua.** Kanpo kontratazioak

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak espezialisten eta perituen edo adituen zerbitzuak kontratatzen ahalko ditu, kontrolaren xede diren arloetan. Egiten diren kontratuak Nafarroako kontratu publikoei buruzko legediari lotuko zaizkio.

2. Zerbitzu espezializatu horiek bulegoko gainontzeko langileek bete beharreko integritate, neutraltasun, erantzukizun, inpartzialtasun eta konfidentzialtasun araubide berari lotuko zaizkio.

### **IV. KAPITULUA** **Funtzionamendua**

#### **49. artikulua.** Ikuskaritza.

1. Lege honetan ezarritako araudiarekin bat eta, ordezkio izaeraz, administrazio prozedura erkideari buruzko araudi indardunarekin bat izapidetu eta bideratu beharko du ikuskari batek ikerketa-espeditente oro.

2. Ikuskariak laguntza eduki ahalko du ikerketa-lanerako, bere beharrianen eta eskakizunen araber.

#### **50. artikulua.** Prestakuntza eta prebentzioa.

1. Prestatzaileak eginen ditu prestakuntza- eta ebaluazio-eginkizunak.

2. Prebentzio-eginkizuna ikuskari batek edo prestatzaile batek eginen du, edo bi teknikarien arteko lankidetzaren bidez eginen da. Prestatzailearen eta ikuskariaren arteko lankidetzaz ezarritzen baldin bada, Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak izendatuko du arduraduna.

3. Arduradunak laguntza eduki ahalko du prebentzio-lanerako, bere beharrianen eta eskakizunen arabera.

### **VI. TITULUA** **Zehapen prozedura**

#### **51. artikulua.** Erantzukizuna.

Arau-hausteen erantzule dira, baita ez-betetze soilaren mailan ere, lege honetan tipifikatutako ekintzetan edo ez-egiteetan erortzen diren agintariak, zuzendaritza-kargudunak eta 4. artikuluan adierazitako entitateen zerbitzuko langileak.

#### **52. artikulua.** Tipikotasuna.

Zehatzeko moduko arau-hausteak dira, lege honen ondorioetarako:

1. Ikerketa-prozedura oztopatzea:

a) Informazioa igortzeari uko eginez.

b) Informazioa osatu gabe edo oker igorritzen behin eta berriro.

c) Beharrezkoa den dokumentaziorako edo espeditenteetarako sarbidea oztopatuz.

d) Bulegoak eskatutako kautelazko neurriak ez hartuz.

2. Ikerketan laguntza ematera behartuta dauden pertsonen arau-hausteak dira:

a) Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak adierazitako agerraldira justifikaziorik gabe ez agertzea.

b) Salaketa ageri-agerian faltsuak eta arau-hauste penalak izateko xede ez direnak egitea.

3. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari modu arrazoituan ez jakinaraztea diziplina espeditente bat edo, kasua bada, zehapen-espeditente bat abiarazteko errekerimendua aintzat ez hartzeko erabakia.

4. Salatzailea babesten ez laguntzea.

5. Ikerketak dirauen bitartean informazioa ezkutuan ematea.

**53. artikulua.** Arau-hauste motak.

1. Arau-hauste oso larriak:

a) Aurreikusitako lankidetzak aktiborako edo informazioa emateko betebeharrak ez betetzea, lehendabiziko atzerapen baten ondoren Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren errekerimendu espresa aintzat hartu ez denean.

b) Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari diziplina espediente bat edo, kasua bada, zehapen-espediente bat abiarazteko errekerimendua aintzat ez hartzeko erabakia modu arrazoituan jakinarazteko betebeharra ez betetzea.

d) Salatzailea babesten ez laguntzea.

e) Ikerketak dirauen bitartean informazioa ezkutuan ematea.

f) Bulegoak ikertu beharreko jarduerak, agerian faltsuak direnak, salatzea.

g) Bulegoak eskatutako kautelazko neurriak ez hartzea.

2. Arau-hauste larriak:

a) Informazioa igortzen atzeratzea justifikaziorik gabe.

b) Ikerketari begira beharrezkoa den dokumentaziorako edo espedienteetarako sarbidea oztogatzea.

c) Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak deitutako agerraldira justifikaziorik gabe ez agertzea.

d) Ustelkeriatzat, iruzurrezko jokabidetzat edo interes orokorraren aurkako legez kanpokotzat har daitezkeen gertakariak ez jakinaraztea.

3. Arau-hauste arinak:

a) Dokumentazioa osatu gabe edo oker igortzea behin eta berriro eta justifikaziorik gabe.

b) Ikerketaren xede diren dokumentuak zaindartzeko arduragabetasuna.

**54. artikulua.** Zehapenak

Arestiko artikuluko arau-hausteei honako zehapen hauek aplikatzen ahal zaizkie:

1. Arau-hauste arinak:

a) Ohartarazpena.

b) 2.000 euro bitarterainoko isun hertsatzailea.

2. Arau-hauste larriak:

a) Ez-betetzearen gaineko deklarazioa, eta deklarazio hori argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

b) 2.001 eurotik 20.000 eurora bitarteko isuna.

3. Arau-hauste oso larriak:

a) Ez-betetzearen gaineko deklarazioa, eta deklarazio hori argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean.

b) Eginkizunak edo kargua bertan behera uztea hiru urtera bitarteko aldirako.

c) 20.001 eurotik 60.000 eurora bitarteko isuna.

**55. artikulua.** Zehatzeko eskumena eta prozedura.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa da titulu honetan aurreikusitako arau-haustek egin izanaren ondoriozko zehapenak ezartzeko organo eskuduna.

2. Baldin eta araudi indardunari jarraikiz beste organo bati badagokio diziplina-zehapena ezartzea, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak organo horri eskatuko dio hartu beharreko neurriak har ditzan kasuko zehapena ezar dadin. Hila-beteko epean, Administrazio eskudunak Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari txosten bat aurkeztu beharko dio, zeinetan adieraziko baita zer neurri hartu diren edo hartu behar diren, eta bestela, zer dela-eta ez den neurririk hartu.

3. Zehapenak ezartzeko, foru lege honetan eta zehapen-prozedura administratiboko araudi indardunean ezarritako xedapenak eta printzipioak jarraikiko dira; entitateen zerbitzuko langileei egoten ahal zaizkien arau-hausteen kasuan, berriz, kasuan-kasuan aplikatu beharreko diziplina arloko funtzionario-, estatutu- edo lan-araubidea.

4. Bulegoaren zehapen-jarduketan iraupena ezin izanen da sei hilabete baino gehiagokoa izan, zehapen-prozedura abiarazteko erabakia hartu zenetik zenbatuta, salbu eta kasuaren konplexutasuna dela-eta epe hori luzatzea komeni bada; edonola ere, epe hori ezin izanen da beste sei hilabete baino gehiagokoa izan.

5. Bulegoak, bere urteko txostenean, espedienteak abiarazteko eskaerak eta administrazioak edo kasuko erakundeak egindako jarduketak jasoko ditu.

**56. artikulua.** Arau-hauste eta zehapenen preskripzioa.

1. Foru lege honetan aurreikusitako arau-hausteak eta zehapenak preskribatuko dira:

a) Arau-hauste eta zehapen oso larrien kasuan, hiru urteren buruan.

b) Arau-hauste larrien kasuan, bi urteren buruan.

c) Arau-hauste arinen kasuan, sei hilabeteren buruan; zehapen larrien kasuan, berriz, urtebeteren buruan.

2. Arau-hausteen preskripzio-epea arau-haustea egin den egunetik hasiko da zenbatzen. Arau-hauste jarraitu edo etengabeen kasuan, jokatibide arau-hauslea bukatzearekin batera hasiko da epea zenbatzen.

Interesduna jakitun delarik zehapen prozedura penal edo administratiboa hasten denean, preskripzio-epea eten eginen da. Berriz hasiko da zenbatzen zehapen espedientea hilabetetik gora geldirik badago ustezko arau-hausleari ezin egozteko moduko arrazoiengatik.

3. Zehapenen preskripzio epea zenbatzen hasiko da zehapena ezartzen duen ebazpena betearazlea izan eta biharamunean edo ebazpenaren aurkako errekurtsua jartzeko epea bukatzen denean.

Preskripzioa eten eginen da baldin eta, interesduna jakinaren gainean egonda, exekuzio-prozedura hasten bada, baina arau-hausleari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik exekuzio-prozedura hilabetetik gora geldirik badago, preskripzio-epea martxan jarriko da berriz.

Zehapena ezartzen duen ebazpenaren aurka ezarritako gora jotzeko errekurtsua ustez ezetsi baldin bada, zehapenaren preskripzio-epea zenbatzen hasiko da errekurtsu hori ebazteko legez ezarritako epea bukatu eta biharamunean.

#### **Lehen xedapen iragankorra.**

Foru lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko gehieneko epean, zuzendariak lobbyen eta lobbyzaleen jarduna arautzeko proposamen bat egin beharko du, zeinean jasoko baitira erregistro bat eta jarduerak bete beharreko jokabideari buruzko kode bat. Araubide hori Nafarroako Parlamentuak onetsi beharko du, foru lege baten mailarekin onetsi ere, eta zehapen-prozedura bat ezarri beharko du ez-betetzeen kasuetarako.

#### **Bigarren xedapen iragankorra.**

Foru lege hau indarrean sartzen denetik urtebeteko gehieneko epean, zuzendariak Jokabide Kode Etiko berri bat taxutu beharko du, zeinaren bidez ezarriko baita zer arau etiko eta zer jokabide-arau bete beharko dituzten Nafarroako Gobernu kideek, goi-kargudunek, behin-behineko langileek, sektore publikoa osatzen duten entitateetako zuzendaritza-kideek eta Nafarroako Parlamentuko nahiz Toki Administrazioako hautesleek, zeinen jarduketek honako printzipio hauek zaindu beharko baitituzte: objektibotasuna, integritatea, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, gardentasuna, eredugarritasuna, zerbitzu publikoaren alde lan egitea, eraginkortasuna, zintzotasuna, austeritatea, genero-berdintasunarekiko errespetua eta kultura- nahiz ingurumen-ingurunearen errespetua, sustapena eta babesa. Nafarroako Parlamentuak foru lege baten mailarekin onetsiko du Kodea.

**Hirugarren xedapen iragankorra.** 2017an zehar, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak honako baliabide ekonomiko hauek edukiko ditu:

1. Kasuko aurrekontu-esleipenak, Nafarroako Foru Komunitateko aurrekontuen kargura.

2. Atxikitzen zaizkion ondasunetatik eta eskubi-deetatik heldu diren errendimenduak.

3. Lege, kontratu edo/eta hitzarmen baten kariaz dagokion beste edozein diru-sarrera.

**Laugarren xedapen iragankorra.** Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak proposaturik, Nafarroako Parlamentuak onetsiko du organo honen antolamenduaren eta funtzionamenduaren erregelamendua, bai eta aurrerago eginen zaizkion aldaketak ere. Erregelamendu hori sei hilabete epean onetsiko da, Bulegoaren zuzendaria izendatzen denetik aitzina.

**Bosgarren xedapen iragankorra.** Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa abian jartzeko, onetsitako lanpostuei esleitutako mailetak funtzionarioei eskainiko zaie lanpostu horiei zerbitzu eginkizunetan atxikitzea.

#### **Lehen xedapen gehigarria.**

Kontratuak, aurrekontu-araubidea, administrazio prozedura eta barne araudia direla-eta lege honetan aurreikusi ez den ororako, foru araudian edo/eta araudi orokorrean ezarritakoa aplikatuko da ordezko izaeraz.

**Bigarren xedapen gehigarria.** Kontratu Publiko buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legean honako hau aldatuko da:

2.1.a) artikulua –Foru legearen mendean dauden pertsonak eta entitateak– honela geldituko da:

1. Honako hauek daude foru lege honen xedapenen mendean:

a) Nafarroako Parlamentua, Kontuen Ganbera, Nafarroako Arartekoa eta Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa.

8.5 artikulua –Bitarteko berekitzat hartzen diren ente instrumentalei egindako enkarguak– honela geldituko da:

5. Ente instrumentalek baliabide material eta tekniko egokiak eduki beharko dituzte enkarguaren xede den prestazioaren zati handiena edo zati adierazgarri bat exekutatzeko, nahiz eta enkarguaren xede diren prestazioak emateko kontratazioak ere egin ahal izanzen dituzten. Kontratazio horiek ezin izanzen dute kontratuaren prezioaren ehuneko 50 baino gehiagoko exekuziorik hartu. Kontratu horien esleipena foru lege honen arauen menpe egonen da. Ondorio horietarako, ez dira hirugarrentzat joko entitate enkargu-egileen beste ente instrumental batzuk.

Horretarako, enkargua egiten zaion ente instrumentalak, enkargua jaso eta bost eguneko epean, justifikatu egin beharko du, enkargua egiten dion entean aurrean, horretarako baliabideak badiuela. Baliabiderik ez duela jotzen bada, enkarguaren xede den prestazioa foru lege honetan jasota-ko prozeduren arabera lizitatu beharko da.

Salbuespen gisa, kontratazio-portzentaje hori gainditzen ahalko da. Betiere, horrela jokatzeko, zorrozki justifikatu beharko da badela horretarako arrazoi justu bat, bidea emanen duena enkarguaren exekuzioa ekonomikoagoa, eraginkorragoa edo efizienteagoa izateko; esate baterako, merkatuaren ezaguera berezia, enpresa-antolamendu hobea edukitzea prestazioaren edo jardueraren osotasunaren exekuzioa –oro har hartuta– aurrera eramateko, edo bestelako arrazoiren bat, justifikatuko duena enkarguak prestazioari balio erantsi bat ezarriko diola azkenean.

Enkargu batean muga hori gainditu nahi bada, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu beharko da. Edonola ere, ente instrumentalek ehuneko hamar baino gehiago kontratatzen badute kanpoan, arrazoiturik jakinarazi beharko diote Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari.

**Hirugarren xedapen gehigarria.** Nafarroako Gobernuak kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako goi karguen bateraezintasunei buruzko azaroaren 4ko 19/1996 Foru Legeari aldaketa hauek egin zaizkio:

8. artikulua. Kudeaketa-organoa.

1. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak independentzia osoz kudeatuko du Goi Karguen Jardueren eta Interesen Erregistroa.

10. artikulua. Informazioa Nafarroako Parlatuari.

Foru Lege honetan ezarritako bateraezintasun araubidearen kontrolaren gardentasuna ziurtatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak, sei hilabetean behin, informazioa igorriko du Nafarroako Parlatuara goi karguek aitortzen egiteko obligazioa nola bete duten eta foru lege honen aurka egin diren arau-hausteak eta ezarri diren zehapenak ere adieraziz.

11. artikulua. Jardueren gaineko aitortpena.

3. Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak aitortpena aztertuko du, eta akats formalik aurkitzen baldin badu interesdunari eskatuko dio akats hori zuzendu dezan.

12. artikulua. Ondasun eta eskubideen aitortpena.

5. Ondarearen gaineko aitortpenarekin batera –hartan jasotzen dira bere ondasun, eskubide eta betebeharrak guztiak–, goi karguak bere baimena emanen dio Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoari, banku entitateei ziurtagiri bat eska diezaien, data horietan aitortutako kontu korranteetan dauden saldoei buruzkoa.

17. artikulua. Zehapen prozeduraren aurreko jarduketak.

1. Jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoak, edozein zehapen espediente abiarazi aitzin, aurretiazko jarduketa erreserbatuak egiten ahalko ditu espediente abiaraztea justifikatzen duen inguruabarririk ba ote den zehaztearren.

19. artikulua. Zehapen prozedurako organo eskudunak.

Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoa da zehapen prozedura abiarazteko organo eskuduna; Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako bulegoaren zuzendariak izendatutako funtzionarioa da, berriz, instrukzioa egiteko organo eskuduna.

**Xedapen indargabetzaile bakarra.**

Indarrik gabe geratzen dira foru lege honetan xedatuari aurka egiten dioten maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak.

**Azken xedapena.** Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

---

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du funts bat sor dezan amiantoaren biktimei kalte-ordaina emateko.**

*GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen baitu funts bat

sor dezan amiantoaren biktimei kalte-ordaina emateko. Mozioa 2016ko ekainaren 17ko 88. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza